



Sei urte pentsio duinak aldarrikatzen

Astleheneko bilkuran hildako kideak gogoan izan zituzten, eta aitzindari izateagatik eskerrak eman zizkieten / 6

Asun Fernandez de Garaialde altsasuarra El Salvadorko hauteskundeetan behatzailea izan da / 2-4

Porlandegiko lan istripuan langile bat hil zen eta horrek protestak eragin zituen / 7

Irati Irigoien Crespo taekwondolariak brontzeko domina ekarri du Espainiako Txapelketetatik / 20-21

Juanjo Mintegi akordeoilariak euskal doinuen inguruko bideo kanala sortu du / 22-23

SINADURAK



ERAIKUNTZA GEHIGARRIA 2024

MARTXOAK 15 948 564 275 • 661 52 32 45 • PUBLI@GUAIXE.EUS IRAGARKIA JARTZEKO AZKEN EGUNA: MARTXOAK 6

"Hauteskundeak irabazteko eremua prestatu du Bukelek"

ASUN FERNANDEZ DE GARAIALDE-LAZKANO NAZIOARTEKO BEHATZAILEA
Mediku altsasuarra El Salvadorreko hauteskundeetan behatzaile izan da, eta egondako "iruzurrak" bertatik bertara ikusi ditu

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU
Otsailaren 4an hauteskundeak izan ziren El Salvadorren. Nayib Bukele presidentearen berrautaketa izan zen, herrialde batean non bozken aurretik presidente



"EL SALVADOR ELKARTASUNA-REKIN JOAN NINTZEN, ETA MAITEMINDU NINTZEN"

ASUN FERNANDEZ DE GARAIALDE

izandakoak ezin duen bere burua berriz aurkeztu. Berrautaketarako "eremua" denbora luzez prestatu duela esan du Asun Fernandez de Garaialde-Lazkano hauteskunde horietan nazioarteko behatzaile aritutako altsasuarrak. **Nola sortu zen El Salvadorko hauteskundeetan behatzaile izateko aukera?** BAMEa (barruko mediku egotziar) bukatu nuenean, aurreko urteko ekainean, El Salvadorre-ra hilabete joan nintzen El Salvador Elkartasuna elkartearekin. Elkarre horrek Cinquera inguruan lan egiten du, eta beraiekin harremanetan jarri nintzen eta, egia esan, gehienbat aisialdi bidaia izan zen. Izugarri gustatu zitzaidan, maitemindu egin nintzen: jendea, tokia eta bertan egiten ari diren guztia. Orduan, hauteskundeak zirela -eta ea nazioarteko behatzaile gisa itzuli nahi nuen esan zidaten, eta baietz esan nien. Elkartearekin joan nintzen, eta Centro Internacional de Solidaridad elkartearekin lankidetzan aritu ginen. Elkarre horrek bertan lan egiten du eta Amerikako Estatu Batuekin ere harremana dute, eta bertan zeuden behatzaile gehienak AEBkoak eta Kanadakoak ziren.

Zein zen giroa edo egoera?

Aurreko urtean egon nintzen, egoera aurretik ezagutzen nuen. Bi urtez Bukele, presidente ateratzen dena, eremua prestatzen egon da berak jarraitzeko eta berriz presidente ateratzeko. San Salvadorren bizi den emakume batek esan zidan une historiko batean egon naizela El Salvadorren, eta, bai, une historiko batean egon naiz; ikusi dudalako bertan izan duten demokrazia laburraren amaiera eta nola pasatu den demokrazia labur horretatik ejerzitoaren laguntza duen diktadura zibil batera. Berak esaten zidan diktadura militar bat bizi izan zutela, eta orain diktadura zibil batera pasa dira ejerzitoaren laguntzarekin. Azken bi edo hiru urteetan, Bukele honek dena prestatu du hauteskundeetan azken kolpea emateko.

Nola prestatu du? Zer egin du?

Bukele 2019an iritsi zen guber-nura. Gorteko magistratuak kargugabetu zituen; epaile guztiak kargutik kendu zituen eta bere aldekoak jarri, berak bezala pentsatzen duten epaileak jarri ditu; eta konstituzioaren interpretazio propioa egin du berriz hauteskunde-



ELKARTASUN AKTIBOA

- » **Netanyahu epaileen aurrera eramateko.**
- » **Gazan proiektuak bultzateko.**

EGIN ZURE EKARPENA

Kontua
S0530350083240830140015

Bizum donazioa
08736 Kodea





El Salvadorreko Pro-Vida elkarteko kideekin; Asun Fernandez de Garaialde erdian. UTZITAKOIA

tara aurkeztu ahal izateko; izan ere, El Salvadorren gobernuan bost urtez egon ondoren ezin dira hauteskundeetara berriz aurkeztu. Orduan, justizi gor-te goren bere nahietara egin zuen, inolako prozesu legalik aurrera eramane gabe. Fiskal orokorra ere kargugabetu zuen; pandemia garaian izandako funtsen bidegabeko erabiltzea ikertzen ari zen fiskala, hain zuzen. Diputatuen kopurua ere murriztu du, 84tik 60ra. Dirua aurrezteko egiten zuela esan zuen, oso popularra gelditzen delako hori esatea, baina erreallitatea da 15 milioitik 56 milioira pasatu dela gastua. Udal-erriak ere murriztu ditu 262tik 44ra. Hori ekainean egin zuen, bertan nengoenean. Ez zuen inolako eztabaidarik behar izan egiteko. Legeak aldatuz joan da, eta Legebiltzarra ere bere nahietara aldatu duenez... 2022ko martxoaren 27an salbuespen egoera ezarri zuen, eta hilabetero luzatzen du. Horrek giza eskubide eta eskubide zibil eta politikoen guztien atzerapen izugarria ekarri du. **Egoera horretan, nola egin daitezke hauteskundeak?**

Salbuespen egoera batean egindako hauteskundeak izan dira. Argi dago zer den prozesu demokratiko bat eta zer diren hautes-

kunde libreak eta bizi nuen guztiagatik, prozesua guztiz kontrakoia izan da. Aurretik egindako guztiagatik, baita hauteskunde egunean ere.

Egoera kontuan hartuta, zein zen zure lana behatzailer gisa?

Lehenengo, giza eskubideen inguruko elkarteekin bilerak egin genituen. Esaterako, abortatzeagatik espetxean egondako emakumeekin bilerak egin genituen. Jendearen egoera eza-gutzeko batzarrak egin genituen eta hauteskunde egunean hainbat eskualdetako eskoletan egon ginen. Horrekin txosten bat egin genuen eta publikoa da. Pentsatu nahi dut txosten hori instantzia gorenentara eramango dutela, eta horrekin lanean jarraituko dutela. Oso bitxia iruditu zitzaidan, adibidez, hauteskunde eguna baino zenbait egun lehenago, hauteskundeak igandean baziren aurreko ostiralean, hango lagun batekin kafe bat hartzera joan nintzela, eta bertatik atera ginenean jende asko zegoela ikusi genuen eta militarrek janari kutxak banatzen ari ziren. Etxez etxe janariz betetako kutxak banatu zituen Bukelek, diru publikoarekin ordaindutakoak eta bere izenean. Niri hori astakeria iruditu zitzaidan. Bestetik, hauteskunde egunean datuen erre-



Hauteskundearen aurretik militarrek janari kutxak banatzen laguntzen. UTZITAKOIA

gistroa ordenagailuekin egiten zuten. Flipatu egin nuen, hemen ez dute egiten, eta han ordenagailuekin ari ziren. Orduan, presidentea aukeratzeko bozken kontaketa oso azkar egin zen. Baina legislatiboendako kontaketa egin aurretik, Bukelek 60tik 56 parlamentari aterako zituela esan zuen, kontaketa hasi aurretik. Azkenean, ezin izan zen kontaketa ordenagailuekin egin blokeatzen zirelako, ez zen seinalea iristen... 4:00etan kontaktatzen ari zen jendea lurretik botata eta lotan ikusten

"MOMENTU HISTORIKO BATEAN BISITATU DUT; DEMOKRAZIOAREN AMAIERA"

"MAGISTRATUAK ETA EPAILEAK KARGUTIK KENDU DITU; KONSTITUZIOA ALDATU DU..."

zenuen. Izugarria izan zen. Azkenean, kontaketa eskuz egin behar zutela esan zieten, baina ez zeuden horretarako prestatuta. Ez hori bakarrik, bozka guztien zaintza kate guztian galdu zen. Inork ez daki nora eramane behar zituzten. Esan zuten hurrengo egunetan berriz kontaketa egingo zuten, baina ezin zen inor joan; behatzaile joatea eskatu genuen baina ez ziguten utzi, ezta oposizio alderdiei ere. 59 parlamentario lortu zituen.

Nola onar daitezke horrelako hauteskundeak? Zerbait egin duzue?

Guk salaketa bat jarri dugu eta ulertzen dugu nazioarteko estamentuetara eramango dutela. Oso bitxia iruditzen zitzaidan egon nintzen mahaietan presidente bezala bozka pila ateratzen zituelako. Baina hori horrela izateko lan ikaragarria egin duela da. Orduan, bozka asko lortu ditu. Baina egia da baita ere mahai berean—apuntatu nuen—, presidente izateko 210 bozka lortu bazituen, bere alderdiak legebiltzarrerako ehun atera zituen. Erdia baino gutxiago. Beste mahaiarekin eta beste begiraleekin kontrastatzen joan ginen eta ezinezkoa da datu horiekin 60tik 59 legebiltzarkide izatea.

Zer ondorio izan ditzake salaketak?

Ez dakit. Ez dakit zer egin daitekeen nazioarteko erakundeetatik. Badakite zer gertatzen ari den eta zer egiten ari den, eta onartzen dute. Arrazoiak ez dakit zeintzuk diren, baina uzten diote. Hauteskunde egunean, Alemaniatik atera ziren esanez ez zutela zorionduko orain arte egindako giza eskubide eta eskubide zibil eta politikoen urraketak izan direlako, ikusi behar zutela bere politiken norakoa zein den.

Zer sentitu zenuen horrelako irregulartasunak ikustean?

Han ezagutzen dudan jendearekin asko hitz egin dut, eta beldurra dute. Ez dakite zer gertatuko zaien. Alde batetik, salbuespen egoeran edozein pertsona atxilotu dezakete inolako agindu judizialik gabe, eta jakin da tortura kasuak izan direla espetxeetan. 75.000 pertsona baino gehiago atxilotu ditu, ustez pandillen auziarekin erlazionatuta. Baina errealitatea da giza eskubideen alde lan egiten duen jende guztia atxilotzen ari dela. Traba egiten dion edonor.

HURRENGO ORRIAN JARRAITUKO DU »

AURREKO ORRIAN HASI DA »

Beraz, saltzen duen ideia da pandillekin amaitzen ari dela eta munduko herrialde arriskutsuena izatetik seguruena izatera pasatu dela. Ideia horrekin egundoko astakeriak egiten ari da. Hango lagunak eta beste elkarreetako pertsonak kontatu didate aurretik pandilletako kideak izateagatik espetxean daudenak eta orain espetxeratu dituztenak salbuespen erregimen batean daudela. Ez dituzte epaitzen, osasun zerbitzurik ez dute eta espetxeetan heriotzak izan dira.

Eta segurtasuna nabaritzen da?

Berdin dio ezkerrekoa zein eskuinekoa izan, egia da jendeak segurtasun handiagoa nabaritzen duela esaten duela. Kalean nabaritzen da. Ni lasai joan naiz. Baina egia da egoera horretan eta aitzaki horrekin egin duela. Herrialde osoa bere nahietara jarri du. Molestatzen dion edonor atxilotzen du. Pandillekin negoziazio bat egon dela uste dute, ez da berak pandillekin bukatu duela, baizik eta negoziazio bat egon dela eta horregatik segurtasun handiagoa dagoela. Beraz, pandillak bakean uzten ditu, baina pandilla bateko kide izatearen aitzakiarekin bere aurka daudenak atxilotzen ditu. Komunikatzen oso ona da, sare sozialetan dabil, jendeari janariz betetako kutzak ematen dizkio... Jendearendako idolo bat da. Baina hau bukatzen denean nola egongo da herrialdea?

Nola ikusten duzu?

Gizarte arloan ez da ezer egiten ari. Hezkuntza aldetik ezta ere. Are gehiago, eman zizkidaten datuen arabera eskola adinean dauden 250.000 haur ez dira eskolara joaten. Pobreziaren datuak hirukoiztu egin dira; kanpoko inbertsioa gutxitu da, baina zorra handitu. Jendea borrokatzen eta antolatzen hasten denean, eta honi buelta ematea lortzen dute, nola geldituko da herrialdea? **Zergatik egiten du? Zeintzuk dira bere helburuak?**

Boterean egotea. Saltzen duena bere irudia eta itxurakeria da; pandillekin amaitu duela dio. Irudi horrekin mantentzen da. Dena itxura da. Nazioartean saltzen du herrialde osoa dela eta berak ondo kudeatzen duela. Adibidez, Miss Universo antzeko lehiaketa bat antolatu zuen eta 100.000 milioi gastatu zituen. Joko Panamerikarrak ere antolatu zituen, eta dirutza gastatu



El Salvador Elkartasuna elkarteko bekadunak. UTZITAKOIA

zituen. Dena itxurakeria da. Baina barnean jendea gaizki dago. Erosketaren saskitxoak (*la canasta de la compra* beraiek esaten duten bezala) izugarri igo da. Oinarrizko jakien prezioa hirukoiztu eta lauukoiztu egin da.

Egoerari buelta emateko lanean ari dira, ezta?

Bai. Baina beldur dira, beldur handia. Edozein momentutan atxilotu ditzaketan beldur dira. Beste batzuek ez dute etorkizunik ikusten eta migratzen ari dira; herrialdetik joaten ari dira. Gehienbat AEBtara.

Bere eredia Hego Amerikatik zabaltzen ari da?

Heroizat dute. Inguruko herrialdeetako herritarrek heroia balitz ikusten dute. Zer egin duen gosten dute. Irudi hori saltzea lortu du, berak nahi duen bezala. Hori lortzen ari da. Kanpoko bozkekin ere iruzur elementu guztiak ditu, eta AEBtan, migratzaile kopuru handien duen herrialdean, esaterako, ez du inork kontrolatu pertsona bakoitzak zenbat aldiz bozkatu duen. Lehenengo aldiz izan da kanpoan bizi diren salvadortarrek bozkatu dutela, baina saldu duen irudi horrekin izan da. Herrialderako ona dela pentsatzen dute, eta irabazi du. Kanpoan bizi den jendeari hori bakarrik iristen zaio, eta sinisten du.

Noiz arte?

Suposatzen da hurrengo hauteskundeak egin arte, hemendik bost urtetara. Baina hauteskunde hauetara ez zen aurkeztu, ezin zuelako errepikatu, eta bere burua aurkeztu du. Hau-



Asun Fernandez de Garaialde, ezkerrean, behatzaile taldeko zenbait kiderekin. UTZITAKOIA

teskundeen ondoren bilera egin genuen eta txostena egiteko gure iritziak eta ideiak komunean jarri genituen, eta Cinqueran itzuli nintzen hango jendearekin egon nahi nuelako itzuli aurretik, eta esan zidaten beldurra zutela. Kontzientziatuago daude, eta borrokan jarraituko dutela eta El Salvadorren etorkizunean sinisten jarraituko dutela esan zidaten, baina beldur dira.

Zergatik Cinquera?

Cinqueran egon nintzen Altsasuko Udalak El Salvador Elkartasuna elkarrekin hitzarmena duelako. Hemendik aurrera gehiago inplikatu nahi dut Camino Mendiluze alkatea izan zenetik Cinquerarekin lanean darama

udalak. Hitzarmen horrekin El Salvador Elkartasunarekin hango gazteendako beka ematen dituzte, ikasteko eta unibertsita-

"ATXILOTUAK IZATEKO BELDUR DIRA, ETA EZ DUTE ETORKIZUNIK IKUSTEN; JOATEN ARI DIRA"

"CINQUERAN GARAPEN JASANGARRIA EGITEN ARI DIRA; HAIK EGITEN DUTE DENA"

tera joateko, eta ordainean komunitatean hainbat lan egin behar izaten dituzte.

Harreman handia dago, beraz.

Bai. Elkarte honek lan handia egin du eta, gainera, proiektu gehiena bertakoek bertakoendako egindakoak dira. Asociación para el Desarrollo Municipal izeneko elkarte bat sortu zuten Bake prozesuen ondoren, eta haiek garapen jasangarria lantzen dute. Hango ikuspegitik lan egiten dute, komunitateak behar zuten garapena egiten. Oso inplikatu daude. Bertan marak (pandillak) ez dira existitzen. Oihan bat berreskuratu dute... El Salvador Elkartasunak ere ProVida deitutako elkarte batekin lan egiten du, ez da hementxo Provida, haiek osasunean, ingurugiroan eta emakumeen ahalduz lanean egiten dute, besteak beste. Bi beka ere ematen ditu El Salvador Elkartasunak, zortzi bat hilabetetarako joateko: ni egon nintzenen bi Cinqueran zeuden eta beste bi náhuat hizkuntza berreskuratzen. Izugarria da egiten duten lan guztia. Orain elkarte hauek ere arazoak izaten hasi dira kontzientzia handiko jendea delako, eta traba handiak jartzen dizkiete baimenak emateko orduan eta abar.

Itzuliko zara?

Bai, eskualdeaz maitemindu nintzen; Cinquerarekin, El Salvadorrekin eta bertako jendearekin. Egiten dizuten harrera izugarria da. Beti lanean ari dira. Nik uste egon nintzen jendearekin ere lan handia egin zuela diktaduran eta gerrillan egondako jendea da, kontzientzia handikoa, eta lan handia egiten dute.

Ahaztuak sentitzen dira?

Rene deitutako lagun batek, betidanik lanean egon dena, esan zidan bake prozesuen ondoren elkarte asko joan zirela, baina iristen ziren eta hau horrela eta horrela egin behar dugu esaten zutela, eta diru asko eramaten zutela, baina nahi zutena egiteko. Horregatik, haiek erabaki zuten ADMak egitea eta garapen jasangarria sustatzea. Behin boom-a pasatu zenean erakunde horiek joaten hasi ziren, eta ahazturan gelditu zen El Salvador GKE daudela esaten dute. Baina munduko beste gatazka askotan bezala. Gatazka dagoen bitartean fokua bertan dago, baina denbora pasatzen denean ahaztu egiten da.


ASTEKOA
AINGERU MIKEO AZPIROTZ

Xuxurlan

Aurreko batean, tabernan kafe bat goxo-goxo hartzen ari nintzela, ondoko mahaikoen zalapartak atera ninduen nire baretasunetik. Izan ere, aita bat bere semeari (suposatzen dut) *bobo, bobo* oihuka hasi zitzaion, amorruez beteta eta bere onetik aterata. Semea zurbil eta ikaraturik. Familiarteko inork ez zuen mugimendu berezirik egin. Nonbait, mutikoak katiluren bat-edo apurtu zuen. Egoera penagarria! Ni ere isilik eta lotsaturik.

Arrazoa ez duenak, oihua handi dio esaera zaharrak. Batzuetan, argudio faltan, ahotsa altxatuta indartu nahi izaten da arrazoibidea. Kasuren batean, haserrea arintzeko baliagarria ere izan daiteke, esaterako, foruzainari egindako kexa goratua isun petrala jartzeagatik. Hala ere, gehienetan, gorputzaldi garrastua gelditu ohi da. Gainera, oihua tartean sartuz gero, komunikazioa eten egiten da, igorlearen mezua ez da hartzailearengana ailegatzen, edo honek murru bat eraiki duelako (berdinen artean), edo izaturik blokeatuta dagoelako (hierarkia dagoenean).

Hona hemen oihu egiteari buruzko ekialdeko ipuin eder bat. Zergatik jendeak oihu egiten du haserretzen denean?, galdetu zuen irakasleak. Baretasuna galtzen dugulako, horregatik egiten dugu

ZER EDO ZER EZTABAIDATU BEHAR DENEAN, EZ UTZI BIHOTZA URRUNTZEN

oihu, erantzun zuen ikasle batek. Baina, zergatik oihu egin beste pertsona ondoan badago?, berriro irakasleak. Oraingoan, inork ez zuen erantzun, eta irakasleak esan zuen: bi pertsona elkarrekin haserre daudenean, haien bihotzak asko urruntzen dira; horregatik,

oihu egin behar dute elkarri entzuteko. Zenbat eta haserretuago egon, orduan eta urrunago egonen dira elkarrengandik; hortaz, bortitzago egin behar dute oihu elkarri entzun ahal izateko. Alabaina, bi pertsona elkarrekin maitemintzen direnean, elkarri goxo-goxo xuxurlan hitz egiten diote, haien bihotzak elkarrengandik oso hurbil daudelako. Haien artean dagoen tartea oso txikia da. Hori horrela, zer edo zer eztabaidatu behar denean, ez utzi bihotza urruntzen, eta ez esan gehiago urruntzeko balioko duen hitz gaiztorik. Izan ere, ailegatuko da eguna zeinetan urruntzen egindako distantzia hain handia izanen den, non ezin izanen baita atzera bueltako biderik aurkitu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus


OBJEKTIBOTIK

jose.delou ESNATU
Altsasu 2024

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus
Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus
Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kiorlak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus
Maketatzailea:
Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus
Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus
ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus
Zuzentzailea:
Maite Iparragirre Astitz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Bilkuraren ondoren, kideetako bati "zorionak zuri" kantatu eta urteurrena ospatzeko auzatea izan zuten.

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Sakanako pentsiodunen eta jubilatuen mugimenduko kideek, ohi bezala, astelehenean kontzentrazioa egin zuten. Deialdia berezia izan zen, izan ere, sei urte egin ditu mugimenduak pentsio duinen aldeko aldarria kalera ateratzen. Zehazki, 2018ko otsailaren 22an atera ziren estreinakoz kalera. Hala ere, aurretik ere bazen kezka. Pentsionistak Martxan taldeak deituta, 2016tik hilabeteko lehen ostiraletan bilkurak egin ziren.

Otsailaren 19ko bilkuran, atzera ere, mugimenduko kideek "bizi baldintza duinak eta pentsio bidezkoagoak" aldarrikatu zituzten. Aukera baliatu zuten hainbat kide gogorarazteko "borroka abiarazi zuten eta, zoritxarrez, utzi gintuztenak: Enriqueta, Frasquito, Peio eta Miguel Angel. Borrokak darrai". Hildako horietako batzuen senideak elkarretaratzean izan ziren. Altsasun elkarretaratzeak egiten hasi zireneko argazki baten kopiak banatu zituzten parte hartzaileen artean. Hartan hildako lau kideak ageri ziren. Irudiarekin batera *eskerrik asko aitzindariak izateagatik* leloa irakur zitekeen.

Lekukotzak

Juana Santano Marquez asteleheneetako elkarretaratzeetan hutsik egiten ez duenetako bat da. "Aspaldi hasi nintzen kontzentrazioetara etortzen. Bizitzaren gorabeherengatik utzi egin nuen, baina, atzera ere,

Pentsio duinen alde, sei urte

Pentsiodunen mugimenduak urteurren bilkuran hil diren kideak gogoan izan zituzten: "haien borroka ereduak bizirik segitzen du". Esan zuten, "pentsio duinen aldeko borrokak guztiondako onura ekarriko du, guretako eta etorkizuneko pentsiodunendako"

hemen nago, uste baitut pentsio duinen alde borrokan segitu behar dugula". Joaquin Romero Santos bilkuretan parte hartzen hasi zen "batez ere, gutxieneko, alarguntasun eta bestelako pentsioak hobetzeko. Ez da nire kasua, baina lagundu beharra dut".

Nekane Senar Aristorena lanean zela, aukera bazuen, Zumalakarregi plazan egiten ziren kontzentrazioetan parte hartzen zuen. Jubilatutako ondoren, astelehenero hutsik egin gabe parte hartzen hasi zen, "duela hiruzpalau urte". Pentsio duinen aldeko protestarekin bat egin zuen "jen-

"GARAIA HELTZEN DENEAN GAZTEEK HALAKO PENSIOAK IZAN DITZATEN NAHI DUT"

deak laguntza behar duelako, indarra egiteko; pentsioak jende gehiagori igotzeko eta denon bizitza hobetzeko". Orraztegi lan egitetik badaki "askori ez zaiela ezer geratzen. Askoren senarrak hil eta ezer gabe gelditu ziren urte haietan. Horregatik, jendearekin batera, indarra egin nahi dut". Jose Ignacio Elorza Diazek ere ez du hutsik egiten asteleheneetako bilkuretan. "Garaia heltzen denean gazteek halako pentsioak izan ditzaten nahi dut. Guk ia konponduta dugu. Eta pentsiorik txikiak jasotzen dituztenei babesa adierazteko, biziraun ahal dezaten".

Senarri aurtengo pentsioen igoerak desengainua eragin zion: "17 euro bakarrik. Bikotekideari esan nion gehiago ez nintzela etorriko. Autonomia nintzen eta oso gutxi kobratzen dut". Santanori gertatzen ari den guztia "oso

bidegabea" iruditzen zaio. Santanok esan duenez, "bukaerara arte borrokatu behar da. Hemen egonen gara, hotz edo bero egin".

Elorzak azaldu duenez, "beti egon naiz langileen borroketan eta hau oso gogoko dut". Elkarretaratzeetan parte hartzeak Santanori "anima" ematen dio, "elkarri lagundu behar diogula uste dut. Jendea erretiratu egiten da, aspertuta. Ez, hemen segitu beharra dugu. Borrokatu beharra dago. 82 urte ditut eta hemen nago, gogotsu. Hankak eta burua ongi ditudan bitartean, hemen egonen naiz. Bizitzan gauzak

BIZITZAN GAUZAK EGIN BEHAR DIRA, NORBERAREN ALDE, ETA BESTEEN ALDE ERE"

egin behar dira, norberaren alde, eta besteen alde ere bai".

Senarrek haiekin batera jende gehiago egotea nahi luke, "eta entzuten duen. Batekesaten zidan: 'zeinen ondo, pentsioa igo digute'. Eta esan nion: 'konturatu zara zergatik?' Ni astelehenero kontzentrazioetara joaten naiz. 'Bai, horregatik izanen da'. Ez du ezer gehiago esan. Badakite jende asko elkartzeak indarra ematen duela. Borroka da".

Pena du Santanok, "jendea ondoritik pasatu, begiratu eta, ezer pasako ez balitz bezala egiten du. Eta gauza asko pasatzen dira. Atzetik asko hitz egiten dugu, baina gero ez dugu aurpegirik ematen. Hemen jende askoz ere gehiagok egon beharko luke, gazteak eta helduak. Helduak alferkeriagatik ez datoz, eta gazteek uste dute haie ez diela eragiten. Baina oker dabilta, iritsiko baitzaie".

Sei urtez bilkurak egin ondoren "pitteka" gauzak lortzen ari direla azaldu du Santanok. "Zerbait lortu da. Badirudi gobernuak gogoan hartu duela, baina oraindik asko falta da", esan du Elorzak. Kontsumo Prezioen Indizea ez dela egoki ezartzen salatu du Elorzak, "nahikoa manipulaturago". Romerok gauza bera uste du: "asko ez, baina pitteka nahi duguna lortzen ari gara. Politikarien agendan pentsiodunen egoera jarri dugu. Ez dira haiek bizi eta jaten duten bakarrak, gainontzekook ere bai".

"Nahi duguna lortu arte jarraitu beharra dago: mundu guztia- rendako pentsio duina", azpimarratu du Romerok. "Zerbait gehiago atera arte" segitzeko prest da Elorza. Helburua pentsio duinak lortzea baita. Senarrek uste du pentsiodunen mugimenduak sei urteko ibilbidean zerbait lortu duela: "jendeari ailegatu zaio herri askotan. Baina oraindik askoz ere gehiago lortu beharra dago. Ez dago beste biderik: elkartu eta borrokan jarraitu. Ni ongi banago eta, ahal badut, etortzen segituko dut".

Mugimenduak Altsasuko Zumalakarregi plazan egiten du bilkura hurrengo astelehen eguerdian. Eta otsailaren 29an, ostegunarekin, 11:00etan Iruñean egiten den manifestazioan presente izanen dira. 1.080 euro orain gizarte ekimenak deitutako mobilizazioarekin foru gobernuari eskatuko diote gutxieneko pentsioak 1.080 eurokoak izatea.

Gazte altsasuarra hil zen porlandegian

Tobera bateko ikatzak azpian harrapatuta hil zen. Hildakoen gertukoei elkartasuna adieraztearekin batera, sindikatuak patronala eta administrazioa egin dituzte lan istripuen arduradun

ALTSASU / OLATZAGUTIA

Cementos Portland Valderrivas enpresan lan istripua izan zen otsailaren 15ean eta, ondorioz, 32 urteko gizonezko altsasuar bat hil zen. Ikerketaren emaitzen zain, momentuz ez dago jakiterik ezbeharrak nola gertatu zen. Ikatzak jasotzera joan zen beste langile batek opatu zuen lankidea hilda. Enpresa berean beste lan

istripu bat izan zen 2022ko irailaren 8an, eta orduan ere langile bat hil zen. Azken urtean lan istripuan hil den hirugarren altsasuarra izan da. Euskal Herrian aurten lan istriputan hamabost pertsona hil dira, horietatik sei Nafarroan.

Porlandegiko enpresa batzordeak deituta, hildakoaren gertukoei elkartasuna adierazi eta

lan istripua salatzen langileek elkarretaratze isila egin zuten lantegiaren alean otsailaren 16ko eguerdian. Egun berean Altsasuko Udalak "lan istripuak behin betiko bukatzeko hartu behar diren neurriak har daitezten aldarrikatu eta nondik norakoak argi ditzan" eskatu zuen. Arratsaldean, berriz, LAB, ESK, STEILAS, EHNE-etxalde, Hiru eta CGT-LKN sindikatuak deituta, protesta bilkura egin zen Altsasuko estalpean.

Porlandegiak lan ibilbide luza du eta makina bat sakandarrek lan egin izan dute bertan. Baita istripuak izan ere. Gertatutakoak etxe eta lagun arte askotan memoria piztu zuen: "nire aitona tobera bateko karga azpian harrapatuta hil zen duela ehun urte". "Duela 70 urte tobera batean larri zauritu nintzen". Halakoak entzun ziren. Baina elkarrizketa horietan guztietan harridura galdera bera sortu zen: "nola gerta daitezke horrelakoak gaur egun?".



Porlandegiko langileek bilkura isila egin zuten ostiral goizean.



LAB, ESK, STEILAS, EHNE-etxalde, Hiru eta CGT-LKN sindikatuak deitutako bilkura.

Solasaldiak
Lantegiak
Hitzaldiak

2024
LITERATURA
-geraldiak

Solasaldiak

- Martxoak 20 | 18:30 | ALTSASUko Iortia kultur gunea
Arantxa Urretabizkaia | AZKEN ETXEA
- Apirilak 26 | 19:00 | UHARTE ARAKILgo udaletxea
Miren Agur Meabe | ITZULERAK

Aurkezpen-solasaldia

- Apirilak 22 | 19:00 | ETXARRI ARANAZko liburutegia
Xabier Mendiguren eta Jon Arratibel "Xafan"
OSO LATZA IZAN DA

Antolatzailea: Mank
Laguntzailea: Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra



Oinez Basoan landaketa egin zutenek ondoren gosaria izan zuten.

Oinez Basoa zuhaitz gehiagorekin handitu dute

Arbizuko Utzubar dermioan 2009an sortutako Oinez Basoak zuhaitz gehiago ditu otsailaren 18az geroztik. Guztira 170 zuhaitz landatu zituzten. Landaketa gehiago eginen dituzte, baita hegaztiak eta animaliak behatzeko begira lekuak jarri ere

Alfredo Alvaro Igoa ARBIZU

Andra Mari ikastolako komunitatea 2023ko Nafarroa Oinezekin bueltaka duela ia bi urte hasi zen. Babesletza batzordeko kide bat Oinez Basoaren batzordean sartu beharra zuen eta Aitor Zubieta Albarracin hautatu zuten. Festa pasa ondoren, Oinez Basoaren kudeaketaz arduratze-

ko guraso talde bat sortu dute hura berritu, handitu eta gauza gehiago egiteko helburuz. Esaterako, ikastolak zuhaitz landaketa antolatu zuen iganderako.

2009ko Nafarroa Oinezekin batera sortu zuen Oinez Basoa ekimena Andra Mari ikastolak. "Orduan landatu zen baso berri hau. Festak gizartean eragina

du, baina naturan ere eragin handia du. Horri buelta emateko, baso bat landatzea erabaki zen. Aurrenekoa Utzuarko hau izan zen. Oso ongi joan zen", azaldu du Zubietak. Joan zen urteko Nafarroa Oinez antolatu ondoren, Oinez Basoari heldu behar zioten: "Oinez Baso berria egin beharrean, zergatik ez dugu dagoe-

naren kudeaketa aldatzen?" pentsatu zuten batzordean.

Lanak

Horretan dabilta: "eremu askotan 2009tik oso-oso ongi hazi dira haritzak, intxaurrendoak eta gaztainondoren bat edo beste, baina beste zenbaitetan ez da ezer sortu". Azken lur zati horiei erreparatu dietela azaldu du Zubietak: "arbolarik sortu ez den tokietan garbiketa sakona egin dugu. Eta gaur landaketa berria egin dugu". Igandean 150 haritz landatu zituzten.

Goiko partean, berriz, hogeitaz gaztainondo. "Galiziatik ekarri ditugu, gaitzak eta ez hartzeko trataturik daude". Zubietak azaldu duenez, "Sakanako Garapen Agentziak gaztainondoekin proiektua du eta gu haren parte gara. Aurki gaztainondo horietan bertako gaztainondoan aldaxkak txertatuko ditugu. Hala, bertako fruituak jasoko ditugu".

Deialdiaren erantzunarekin "oso pozik" zeuden taldekoak, "familia asko etorri dira, giro polita sortu da, eguraldia paregabea". Joan zirenei lana errazteko zuloak eginak utzi zizkieten, "jendea hurrengo landaketetarako animatzeko. Azkenean, hori da helburua, denok elkartzea eta halako giroa egotea". Oinez Basoa maiatzean mustuko dute.

Etorkizuna

Oinez Basoan eremu handia dago oraindik ere sasiz garbitzeko.

Horiek garbitu eta bertan zuhaitzak landatzen joanen dira. "Lehen Hezkuntzakoak hurrengo urteetan ezkurak bildu eta ikastolan bertan landatuko dituzte. Haztean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak basoan landatzea etorriko dira. Ikastolan urteroko ekintza bat izatea nahi dugu", azaldu du Zubietak. Gaineratu duenez, "halako baso handi bat kudeatzea ikastolarendako izugarritzako balio positiboa da. Eta ikasleendako gauza oso ona da".

Ur baltsa pare bat dago basoaren beheko partean. Zubietak nabarmendu duenez, "natur inguru zoragarria dugu hemen. Basozainek esana da hemen dagoena izugarria dela. Hondakindegia ondoan dago. Hark animalia asko erakartzen ditu". Egin dituzten behaketetan ikusi dituzte "putreak zientoka, lurtean asko. Miru asko, Europan asko jaisten ari dela esan digute eta hemen izugarri dago. Bele, azeri, orkatz eta basurde asko. Egunez ikusten dira. Baltsak erakarrira usoak eta pasako hegazti asko gelditzen dira bertan". Haiek ikusteko behatokiak eginen dituztela jakinarazi du Zubietak.

"TOKI GUTXITAN DAGO PAREKORIK. BASOZAINEN ESANA DA HEMEN DAGOENA IZUGARRIA DELA"

Eskolatzea euskarazko hezkuntza eleaniztunean egiteko gonbita

Nafarroako tokiko hogeitaz erakundek egin dute, tartean Sakanako Mankomunitateak

SAKANA

Aurki hainbat gurasok hurrengo urteetako hezkuntza-eredua nahiz ikastetxea aukeratuko dituzte. Aurrematrikulazio garaian Euskara Zerbitzua gutun bidez jarri da harremanetan haiekin. Haren bidez, "euskarazko hezkuntza eleaniztunak, D ereduak, dituen interesetako batzuk" azaldu dizkie gurasoei. Gutunean adierazten denez, D ereduak "haurrak inklusiboak izan daitezten hezten ditu, haien ezaugarri anitzak kontuan hartuz. Hamarkadaz hamarkada sendotutako ereduak



Hiru haur kalean. ARTXIBOA

da, etenik gabe berritzen eta on-tzen dena gure seme-alabentzat egiten duen etorkizunerako bidaian".

Mank-etik gaztigatu dutenez, "D ereduak prestakuntza tekniko eta sozial eleanitza eskaintzen die haurrei, euskararen, gaztelaniaren eta ingelesaren ikasketak bermatuz, tokiko eta kanpoko erronkei erantzun ahal izateko". Gaineratu dutenez, "hori guztia bertako kultura murgilduz, gizarte hau osatzen dugunon jatorri ezberdinekin sentsibilizatuta dagoen hezkuntza-komunitate atsegina eta solidarioa sortuz". Esan dute, bestalde, "abantailez (gizarte harremanak, enplegua...) betetako etorkizunerako bidaian, gurasoek ikastetxearen eta Euskara Zerbitzua-ren laguntza izanen dute hezkuntza prozesuan".



Umeak eta zuhaitzak, bederatzi

San Joan ermitaren hegoaldean dagoen zelaiak Zuhaitz Eguna hartu zuen igandean. Arbizuko Udalak 2023an herrian jaiotako umeen senideak parte hartzea gonbidatu zituen. Jaioberri bakoitzeko familia bakoitzak zuhaitz bana landatzean datza udalak prestatutako ekimena. Urkiak, astigarrak eta haritzak, hiruna ale, landatu zituzten guztien senideek.



Altsasuarrak Zumalakarregi plazako jolas parkean. ARTXIBOA

AsInSakana berregiten hasiak

Ibarreko migratzaileak elkartuko dituen erakundea berriro eratzeko aurreneko bilera otsailaren 18an, igandean, egin zuten Altsasun. Elkarte berrabiaraztea erabaki zuten. Bilkuran hainbat gabezia zerrendatu zituzten

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU
AsInSakana elkarte, Asociacion de Inmigrantes de Sakana, 2005ean sortu zen. Haren sortzaileetako bat Evelin Trujillo Vega olaztiarra izan zen, gaur egun Nafarroako Atzeritarren Elkarte Federazioko, Nazioen Etxeko koordinatzailea dena. Federazioko kideak Nafarroan barna erronda egiten ari dira eta Altsasun egin zuten geldialdietako bat otsailaren 18an.

Trujillok gogoratu duenez, garai hartan, hainbat jarduera egin zituzten Lakuntzan eta Etxarri Aranatz: "Munduko Arrozak ekimena egin genuen. Emakumezkoak elkar ezagutzeko herriz herri sukaldaritza tailerrak egin ziren, autoa genuenok errazago genuen parte hartzeko. Futbol talde bat sortu zen, Lakuntzan jokatzeko zuena. Hainbat herritan bizi ziren ko-

lonbiarrek, ekuadortarrek eta txiletarrek osatu zuten taldea. Asoziazio mugimendu ederra egon zen orduan. Baina krisiak sakon eragin zion". Azaldu duenez, "2010 eta 2012 urteen artean askok alde egin zuten. Lana galdu zuten, erositako etxea ordaindu ezin zuten, krisiak batzuk bere sorterrira bueltatzea eragin zuen. Beste batzuek Europar probatu zuten". Joandako gehienak bueltatu dira. "Orain berriro ekin diogu elkarteari, izan ere, elkarte gauza askotarako behar baita".

Bileraz

Bilera deitu zuten "jakin nahi genuelako jarduerak antolatze gogorik ba ote zen. Haiek planifika ditzatela, igandean Altsasun oso tristeak baitira. Ideia da herrika lan egitea, herri bakoitzean gaur egun nahi-

ko jende baitago". Baiezkoa jaso zuten. Trujillok azaldu duenez, "oso harrera ona izan genuen. Emakumezko askok eta gizonzko gutxik parte hartu zuten, denak altsasuarrak. Beste herrietakoak ez egoteak harritu

gintuen. Pentsatzen dut garraioagatik izanen zela". Bi gizonzko altsasuarrak lagundu nahi zutela adierazi zieten. "Ederki iruditu zitzaigun". Bileran Ekuador, Kolonbia, El Salvador, Txile, Puerto Rico, Nikaragua eta Marokon jaiotako sakandarrak izan ziren. Bilkuran "20 bat urte Altsasun bizitzen daramaten pertsonak daude, hemen bizi-tzeagatik pozik daude gehienak. Baina gauzak behar direla sentitzen dute".

Premiak

Topaketan "Altsasun dauden gabezia ugari" agerian gelditu ziren, "beste herriak ez genituen aipatu". Haietako bat da familiek ez hurrek igandean ez dutela ezer egitekorik. Gogoratu zuen migratzaileek asteburutan egiten dituztela jarduerak, "bestela ezinezkoa baita". Migratuek seme-alaba nerabe eta gazteekin ere kezka dutela esan zuten, "gaztetxea eta porroak, ia herri guztietan atera den gaia da", argitu du Trujillok, "entretentuta egoteko edozer gauza izatea nahi lukete gurasoek".

Emakumezkoek elkar ez zutela ezagutzen azaldu zuten. "Ez dago horretarako aukera ematen duen eremurik. Igandeko bileran aurkezpen erronda egin genuen eta herri berekoak zirela jabetu ziren emakumezko batzuk. Askotan elkar ikusi bazuten ere, lotsa edo dena delakoagatik ez zuten elkar ezagutzen".

Etxarri Aranazko osasun etxean dago Emakumezkoen Arreta Zentroa. "Batuetan ordutegiak eta garraio publikoak ez dute bat egiten. Emakumezko guztiek ez dute gida baimenik edota autorik. Edo denek ez dute autoan eraman ditzakeen lagunik. Haietako batek azaldu zuen

ginekologia arazoa izan zuela joan zen urtean, eta garraioaren arazoagatik ezin izan zela Etxarriko zentrorra joan. Joan daitezke, baina ez dira haurrak ikastetxetik jasotzeko garaiz iristen". Olaztiarrak nabarmendu duenez, "halako gabeziek eragiten dute emakumezkoak berez garatzeko edo dituzten premiak asetzeko aukera ez izatea". Migrazio doluak eragindako buru osasuneko arazoak, etorri berriei egindako harrearen gabeziak eta beste gai batzuk atera ziren. Trujillok laburbildu duenez, "gabezia handiak daude. Elkartz gero, zein konponbide izan ditzaketen azter dezakegu".

Hurrengoa

Bilkuran izan zirenek telefono zenbakiak eman eta guztiak txat batean bildu zituzten. Bertara gehitu nahi dutenek 620 926 348 telefono zenbakira mezua bidal dezakete. "Gainera, federazioak zabalkunde zerrenda batean sartuko ditu. Haren bidez, herrietan sortzen diren lan eta prestakuntza eskaintzen, federazioko kolektiboen jardueren, ospakizunen eta bestelakoen berri emanen diegu".

Hurrengo bilera bi bat aste barru egingen dute. Ideia ekaitza egingen dute. "Gainera, federaziotik elkartean trebakuntza eskainiko diegu: elkartea nola kudeatu behar den jakin dezaten, boluntarioen taldea nola sortu, zuzendaritzako kideen zereginak zein diren, kudeaketa liburuak... Zuzendaritza berriko da", azaldu du olaztiarrak. Federazioan eta AsInSakanan presidenteak atzerrian jaiotako pertsonak izan behar dira. Zuzendaritzako gainontzeko kideen sorteria zein den berdin dio.

kaxeta
LIBURUDENA

Azpimarratzeko,
zein kolore duzu gustokoen?

www.kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

EGURDIAN
sutarako egurra

608 57 03 57

xapatero
taberna

Asteburuetan
giro ederral!

948 460 162 · Etxarri Aranatz



Zazpi orduko irakurraldiaren ondoren, kontzentrazioa egin zuten plazako estalopean. UTZITAKOIA

Izenez izen, Palestina gertu

Palestina "egiten ari diren genozidioa salatzen eta presioa egiteko, gobernuek Israeli nahikoa da esan diezaioten, eraildako 12.500 haurren izen-abizenak eta adina" irakurri zituzten. Dauden deialdietan parte hartzea animatu dute

DUELA 25 URTE...



Lizarragako trikitilariak

Lizarratarrek herriko festak musikaz alaitzeko beti kanpoan bilatu behar izaten zituzten musikariak. Batean eta bestean galdezka ibili behar izaten zuten. Baina herriko hiru neska koxkor, 15 eta 16 urte artekoak, trikitixa jotzen oso ongi moldatzen ziren. Miren, Uxue eta Miren ziren trikitilariak. Aurrenekoz festetan jo zuten, eta urduri samar aritu baziren ere, jendea dantzan jartzea lortu zuten.

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Palestina elkartasun taldeak *Zenbaki bat baino gehiago dira, haur palestinarrek izena dute* ekimena antolatu zuen larunbatean. "Sionistek eraildako haur palestinarren izen-abizenak eta haien adina da plazan entzun dena. 12.500 haur baino gehiago erail dituzte. Baina zenbakiez haratago joan nahi dugu, zeren zenbaki horien atzean bizitzak, ilusioak eta, azkenean, izenak daude", azaldu zuen Ander Muñoz Garcia taldekidea. Irakurketan zazpi ordu eman zituzten. "Zoritxarrez" zerrenda luzatuko dela adierazi du Muñozek, "Gazaren hegoaldea erasotu nahi baitute. Dagoeneko ez daukate nora joan". Horregatik, esan du: "genozidio hau geldiarazi behar dugu".

Hasieran, 13:00etan, etxarriar mordo zegoen plazan eta "errealitatearen zaplaztako bat" jaso zutela adierazi du Muñozek.

"Zenbakiak entzuten ditugu. Baina izen-abizenak jartzerakoan, benetan zer gertatzen ari den pentsarazten dizu. Jendeak oso ongi erreazionatu du, errespetu osoz ibili da, oso-oso ongi". Bukatzean *Sarraskia gelditu, Palestina askatu* leloa zuen bilkura egin zuten.

Irakurketa egiteko 60 bat etxarriarrek eman zuten izena. Ordubeteko txandak antolatu zituzten. Txanda guztiak beteta, helburua lortuz jo zuten aurretik antolatzaileek. Txanda bakoitzean zortzi bat irakurleez aparte, taldeko kide bat egon zen. Hark dena behar bezala joaten zela ziurtatzeaz aparte, grabazioak eta argazkiak egiteaz arduratu zen.

Taldeaz

Palestina gertatzen ari zenarekin kezka zuten lauzpabost etxarriar lastailaren 12an hasi ziren biltzen. Orduan Palestinako bandera bat kioskoan jarri zuten. Gaur egun dozena inguru kide ditu taldeak, hainbat jatorritako etxarriarrek dira, arabiar kulturako lau etxarriar barne. "Haiek propio bezala bizi dute. Bestela ere, Euskal Herriak beti Palestinarekiko elkartasun oso handia

"ZENBAKIEI IZEN-ABIZENAK JARTZEAN, BENETAN ZER GERTATZEN ARI DEN PENSARAZTEN DIZU"

izan du. Guk ere gurea bezala sentitzen dugu. Oso gauza polita sortzen ari da, naturaltasunez. Harremanak estutu dira eta, honetatik, zerbait aberasgarria ateratzen ari gara. Elkar ezagutzaz asko hobetzen ari da", azaldu du Muñozek.

Astero zerbait egiteko helburua jarri zioten euren buruari, "gertatzen ari dena oso larria delako; jendeak Palestinan gertatzen ari dena ez ahazteko". Lastailaz geroztik kontzentrazioak, tabernetan eta komertzioetan ikurrak jarri dituzte, murala... eta beste egin dituzte.

Segida

Israelek Palestinaren kontra egiten segitzen duenez, taldeak ere lanean jarraituko du. Harremana dute Nafarroako Boikota, Desinbertsioak eta Zigorra (BDZ) taldearekin. Gainera, taldea Yala Nafarroa Palestinarekin eta Gernika-Palestina herri ekimenean parte da. Bestalde, igandean, 12:00etan, Iruñeko Antoniutti parketik abiatuko den manifestazioan parte hartzea deitu dute. Boikota, Desinbertsioak eta Zigorra eta Yala Nafarroa taldeek antolatu dute mobilizazioa.

Horrekin batera, martxoaren 2rako antolatutako deialdiarekin ere bat egin du taldeak. Yala Nafarroa eta Gernika-Palestina ekimenean deialdia da. Momentuz, ibarrean Altsasun aurreikusia dago ekimena. Herrietan bi ordu Palestinarekin elkartasun aktiboan dinamika antolatuko da. Altsasun, bizilagunen eta kolektiboen laguntza izan nahi dute prestaketan. Parte hartzea gonbidatu dituzte.

Dinamikak bi helburu ditu. Batetik, Gazako herritarren artean gizarte area herreraikitze-ko proiektu humanitarioak bultzatzea, Mundu Bat gobernuz kanpoko erakundearen bidez. Giza eskubideetan, generoan eta feminismoan eta elikadura subiranotasuna bulkatzen duten ekintza humanitarioko proiektuak garatzen dituzten erakunde palestinarrei bideratuko zaie dirua. Bestetik, diruz lagundu nahi dute Palestinako legelarien ekimena: Nazioarteko Zigor Gorteko fiskal Khan jaunaren aurrera eramatea Israelgo agintari militarrek eta zibilak. Gazaren kontrako eraso indiskriminatua hasi zutenetik egin dituzten gizateriaren aurkako krimenak hark ikertzea nahi dute eta.

"Egungo trenbidea hobetu eta erabili behar da"

IÑIGO LEZA PESQUERA ARABA TRENAREN ALDE PLATAFORMAKOIA

Tren publiko eta sozialaren aldeko jardunaldiak antolatu dituzte Araba trenaren alde, Goierriko AHTrik ez eta Nafarroa trenaren aldeko plataformek

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Tren sozialaren alde egiten duten erakundeek antolatu dituzte *Trenbidearen defentsan eta AHTaren txikizioa gelditzeko* jardunaldiak. Irurtzun, Altsasun eta Agurain dira haien egoitzak. Jardunaldien egitaraua 14. orrian kontsulta daiteke.

Jardunaldiei hasiera atzo eguerdian eman zieten parodia eginez: "On Tren jaunari azken agurra emanetz". Hilikutxaren atzean zihuan segizioko herritarrek lore eskaintza egin zuten agurtu aurretik. "Bere faltak asko hunkitzen gaitu, nahiz eta On Abiadura Handiko Trenak ordezkaturiko duen, zeinak ibarra suntsitu digun, ez gaituen inora eramane eta dirutza kostatuko zaigun herritar bakoitzari". Aldi berean, gogorarazi zuten, "On Tren abegitsua, langilea eta borrokalaria izan zen, baina ez zuen porlanaren espekulatuzaileen bataila irabazi. Batetik bestera eramatez arduratu zen izaki berezia izan zen. Poz handiak ematen zizkigun, batez ere, berandu iristen zenean administrazioek bere trenbideetan dirurik inbertitzen ez zutelako". Hiletara agertu zirenek esan zuten, "haren heriotza ez da ezustea izan, administrazioek egunero gaizki tratatu baitzuten,



On Trenen hiletak eman zion hasiera jardunaldiei. Lezak hilikutxa eraman zuten.

nahiz eta berak bizinahia agertu". Hala ere, "berak guk borrokan jarraitzea nahiko luke". Segizioan, hilikutxa eraman zutenetako bat izan zen Iñigo Leza Pesquera, Araba trenaren alde plataformako kidea.

Zergatik jardunaldiak?

Proposatu dugun alternatiba ezagutarazi nahi dugu Arabako Lautadan, Gipuzkoako Goierri eta Sakanan. Pentsatzen dugu jendeak ez dakiela oso ondo zein den guk proposatzen dugun alternatiba. Erakutsi nahi dugu beste leku batzuetan ere halako

planteamenduak egin dituztela, esaterako, Iparralden, Espainian eta Italian.

Hausnartzeko tartea hartu nahi duzue?

Hori da, bai. Kontuan hartu behar da Ipar eta Hego Euskal Herrian eta Italian 30 urte daramatzagula Abiadura Handiko Tren (AHT) eredu horren kontra borrokatzen. Horri buruz ere hausnartu nahi dugu: nola borrokatu garen, zer planteamendu egiten ditugun eta beste leku batzuetan zer proposamen egin dituzten.

Zer tren eredu defendatzen duzue?

Tren sozialaren aldeko apustua egiten dugu: gaur egungo trenbidea hobetu eta erabili behar da; tren gehiago jarri behar dira hiriak, eskualdeak, hiriburuak eta industrialdeak konektatzeko. Gure ustez, ez da egungo trenbidearen paraleloan beste azpiegitura bat egin behar, AHTk erabiliko lukeena bakarrik. Hori egin den tokietan ikusi dugu betiko tren desagertzen joan dela.

Italia eta Iparraldeko borrokan berri emanetz, zer lortu nahi duzue?

Iparralden AHTren obra berriak eta momentuz gelditzea lortu dute. Orain dela urte eta erdi Irun, Bordele eta Baionako alkateek egungo trenbidea berritzea eskatu zuten, AHTrako linea berririk ez egitea. Hori interesgarria iruditzen zaigu. Italiako Val di Susa borroka ereduak egin dute azken 30 urteetan. Nahiz eta Gobernuak kristoren indarra jarri, erreprezio izugarria izan, baliabide asko jarri eta polizia eta militarrek bidali dituzten arren, oraindik oso gutxi aurreratu dute. Bienandik asko ikasi dezakegula iruditzen zaigu.

Erakutsi nahi duzue zuen eskaera ez dela erokeria bat?

Hori da. Beste leku batzuetan egin da gurea bezalako eskaria. Esaterako, Errioxan, Zaragozan eta Teruelen halako egitasmoak egin dira aurreko urteetan, Espainiako Gobernuak halako proposamenak egin ditu. Euskal Herrian, zergatik ez? Hori ere azaltzeko etorriko dira Espainiako estatuko ordezkari batzuk ere. **Zer lortu nahi duzue larunbat arratsaldeko konferentziarekin?**

Gure alternatiba landu duten ingeniariak gure proposamenaren berri emanen dute. Tren sozialaren aldeko koordinakun-

dean dagoen tren gidariak eskarmentu zabala du. Adif eta Renfeko sindikatu guztiekin akordiora iritsi ondoren egin genuen alternatiba hau. Ekologistak Martxan-eko koordinatzaile orokorra ere izanen da, eta beraien ikuspuntuaren berri emanen du. Konferentziarekin ere irudikatu nahi dugu gure alternatibak ibarretan zer babesa duen. Garrantzitsua da jendea joatea. Argazki polit bat atera nahi dugu apirilaren 20ko manifestaziora deitzeko.

Zergatik ari zarete hiru plataformak elkarlanean?

Proiektuak Araba, Gipuzkoa eta Nafarroari eragiten digulako. Errauskailuarekin egin zen bezala, borroka denok batera egitea erabaki dugu. Elkarrekin indar gehiago lortuko dugula ikusten dugu. Eta aukera gehiago izanen ditugula egitasmo horiek gelditze eta gaur egungo trenbidea hobetzeko. Gure ustez, azpiegitura berri bat egiteko plana baztertuta egon beharko litzateke. **Guztia apirilaren 20ko deialdiaren atariko da?**

Bai. Jardunaldiak antolatu ditugu jendea informatzeko eta manifestazio nazional deialdi hori berotzeko. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan hauteskundeak izanen dira. Nafarroan trenbide eredu aldatzeko aukerak egon badaudela ematen du. Apirilaren 20an Altsasura jende asko bertaratzea espero dugu, eta gaur egun dauden planak bertan behera gelditzea lortzea.

"KONFERENTZIAREKIN IRUDIKATU NAHI DUGU GURE ALTERNATIBAK IBARRETAN ZER BABESA DUEN"



ATE IREKIAK (TxioKAN)
Martxoak 1, 16:30ean





HITZORDU PERTSONALIZATUAK



www.inigoaritzza.eus



948562951 / 689454168



ikastola@inigoaritzza.eus

IHOTEAK

Mozorro festak, kitto

Mozorrotzeari gustua hartua diote sakandarrek, eta hala erakutsi zuten pasa den asteburuan hiriberriarrek, bakaikuarrek, iturmendiarrek, altsasuarrek, olaztiarrek eta ziordiarrek. Bakaikun kamarroak kalera atera ziren, gainontzekoetan kuadrillen irudimenaz gozatzeko aukera izan zen. Altsasuk San Fermin festen itxura hartu zuen



HIRIBERRI ARAKIL - UTZITAKOIA



BAKAIKU



ITURMENDI



ALTSASU - UTZITAKOIA

21. KORRIKA KULTURALA
korrika.eus

HARRO HERRI

BADON POSDRAMATIKO BOST OPERA BAT KOADROTAN

Altsasu Martxoak 1
19:00etan
Iortia kultur etxea
Sarreraren prezioa 7 €
Korrika laguntzaileak 5 €

TALDE SORTZAILEA AIMARA GURRUTXAGA, OIHANA VESGA, XANTI AGIRREZABALA, INES OSINAGA, MARINA SUAREZ ZUZENEKO MUSIKA INES OSINAGA, TESTUAK TALDE SORTZAILEA ZUZENDARITZA MARINA SUAREZ ORTIZ DE ZARATE MUSIKA KONPOSAKETA INES OSINAGA BIDE SORKUNTZA ZUZENEAN ITZIAR GARALUCE KANPO BEGIRADA EDURNE AZKARATE ARGI DISEINUA ELENA GARCIA SOINU PRODUKZIOA ENERITZ FURYAK ESZENOGRAFIA SORTZAILE TALDEA JANTZIAK JULENE GREGORIO ARGI TEKNIKARIA BIRAN ELENA GARCIA KOMUNIKAZIOA XERRA ESTUDIODIA EKOIZPENA MAURIZIAK EZ DAU INOR HIL ETA AEK BANAKETA AMAIA CASTANEDA EKOIZPEN TEKNIKOA INES OSINAGA EKOIZPEN TEKNIKOKO LAGUNTZAILEA AMAIA CASTANEDATESTU AHOLKULARITZA UKUE ALBERDI KOPLA ZAINDARIA MIREN AMURIZA NARRAZIOAK ETA AHOZAK MIREN GAZTANAGA SOINU BANDA MAITE ARROTTIAJAUREGI AHOLKULARITZA ETA KONTRASTEIA LOREA ARGARATE, TRIPAK, DEJABU



HIRIBERRI ARAKIL - UTZITAKOIA



BAKAIKU



ITURMENDI



ALTSASU



OLATZAGUTIA



ZIORDIA - UTZITAKOA



OLATZAGUTIA



ZIORDIA - UTZITAKOA



BAKAIKU



ITURMENDI



OLATZAGUTIA

JARRAI GAITZAZU INSTAGRAMEN !!!

eta horrela gure produktuak ezagutuko dituzu, nola egiten dugun lan, gure dendak eta salmenta puntuak... Baina hainbat lehiaketetan ere parte hartuko duzu, promozioekin onurak izan, ideia handiak... eta askoz gehiago ere.



 **@panesamayaogiak**

Amaya

OGITEGIA
LAPURTEA 1984

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI

ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 23

IRURTZUN Jardunaldiak.

Trenbidearen defentsan eta AHTaren txikizioa gelditzeko jardunaldiak. Mahai ingurua: *AHTari alternatiba Sakanan* proiektuaren aurkezpena. *AHTaren historia gure lurraldetik haratago*. Italiako ordezkariak, Ipar Euskal Herriko ordezkariak, Tren publiko eta sozialaren aldeko estatuko plataforma eta Sakana Trenaren Alde eta Oltza-Iza.

18:00etan, Pikuxarren.

ARBIZU Kafe tertulia.

Ikastola, lehen eta orain eta Beietz beste 50? kafe tertulia ikastolako hasierako guraso, irakasle, ikasleekin eta egungo ikasleekin, Arbizuko ikastolaren 50 urteurrenaren harira.

18:00etan, udaletxeko batzar aretoan.

ALTSASU Jardunaldiak.

Trenbidearen defentsan eta AHTaren txikizioa gelditzeko jardunaldiak. Hitzaldia: *Antolakuntza, borroka eta errepresioa* Val di Susa Italiako ordezkariarekin.

18:00etan, gaztetxean.

ALTSASU Mustutze ekitaldia.

ZORION AGURRAK



Gorka Galarza

Zorionak!!! Laxter beteko ttuzu 9 urte ta, baakigu lanpetuta zaudela bei ikasketa bei kirolakin ee, beye denak utzi ta alkarrekin ospatuko degu zu egune. Muxu asko. Fameliye.

Sorioneku! Euskal Eskultura 2.100 urte: 50 eskultorek parte hartu dute Eskuahaldunak, Euskal Herriko Eskultoreen Elkartearen erakusketaren mustutzea. **18:00etan, Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.**

LARUNBATA 24

ALTSASU Jardunaldiak.

Trenbidearen defentsan eta AHTaren txikizioa gelditzeko jardunaldiak. **08:30** Gosaria. Kukuereka elkartearen. **10:00-14:00** Ponentzia saioa. Iortia kultur gunean. **10:00-11:15** AHT Gelditu Nafarroa: *AHTaren aurkako borrokaren ibilbidea Euskal Herrian.*

11:15-12:00 Altsasuko Adif enpresa batzordeko kideak: *Abiadura handia eta ohiko trenbide lineen desegitea.* Altsasuko kasua.

12:00-12:30 Atsedena.

12:30-12:45 Sustrai Erakuntza: *Abiadura handiko azpiegituren inguruko negozioa eta espekulazioa.* Etxabakoizko pelotazoa.

11:00-14:00 Haurrendako jolasak. Burunda frontoian.

11:30 Ipuin kontalaria: Kontu Kurunkun.

12:30 Ipuin kontalaria: Josune Garcia de Bikuñaren *Urrutiko intxaurrak.*

13:30 Zirku ikuskizuna: Nomada Zirkuaren *Zepellin.*

14:30-16:00 Bazkaria. Kukuereka elkartearen.

16:00-17:30 Kafe tertulia: *Espainiar Estatuko plataformak: Trenbidearen defentsaren oraina eta etorkizuna espainiar estatuan.* Mobilizazioak, ibilbidea eta emaitza.

18:00-19:30 Konferentzia: *Burgos, Araba eta Nafarroako tren publiko eta sozial baten proposamena eta ibilbideen azterketa.* Parte hartzaileak: Kimetz Munitxa, Bide, ubide eta portuetako ingeniaria eta Alternatiba proiektuaren garapen taldeko kidea; Ignacio Rubin, bide, ubide

LARUNBATA 24

IHABAR Bertso afaria. Bertso afaria Onintza Enbeita eta Jon Maia bertsolariekin. Korrika Kulturalaren ekimenaren parte. **21:30ean, herri etxean.**

OSTIRALA 1

ALTSASU Ikuskizuna.

Badon Mauriziaketzaduinorhil* opera posdramatikoaren emanaldia: buruak berpentsatzeko eta berreraikitze ariketa bat da, baina batez ere, denaren gainetik, norberaren buruak ospatzeko festa bat. Korrika Kulturalaren ekimenaren ekitaldi nagusia. Euskaraz. Sarrerak: orokorrak 7 euro; Korrika lagun txartelarekin 5 euro. **19:00etan, Iortia kultur gunean.**

eta portuetako ingeniaria eta Alternatiba proiektuaren garapen taldeko kidea; Juan Ramon Ferrandis, tren makinista; Carmen Duce, Ekologistak Martxaneko koordinatzaile orokorra eta garraio arloko arduradun ohia; Nafarroa/Lautada trenaren aldeko kidea. Burunda frontoian.

21:30 Afarria eta kontzertu akustikoa. Kukuereka elkartearen.

IRURTZUN Tailerra.

Autodefentsa feminista tailerra Elene Malaguillarekin, Irurtzongo Emakume Taldeak antolatuta, Irurtzongo Udalaren



ETXARRI ARANATZ Saharako liburutegi ibiltariak Hegoak Hegan Bubisher elkartearen hamabosgarren urteurrenaren erakusketa.

Otsailaren 23ra arte. Liburutegian.

ALTSASU Altsasuko liburutegiaren 90. urteurrena. Ospatu gurekin! Dokumentu, objektu eta liburuen erakusketa. *Otsailaren 29ra. Astelehenetik ostiralera 14:00etatik 20:00etara. Liburutegian.*



UTZITAKOA



IORTIA KULTUR GUNEA

ALTSASU Sorioneku! Euskal Eskultura 2.100 urte: 50 eskultorek parte hartu dute Eskuahaldunak, Euskal Herriko Eskultoreen Elkartearen erakusketa. *Otsailaren 20etik martxoaren 20ra. Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.*

laguntzarekin. Oharra: posible bada esterilla eraman.

16:00etatik 20:00etara, Atakondoako kiroldogian.

ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea: sexualitate aholkularitza zerbitzua. **17:30etik 20:30era, Intxostiapunta gazte gunean.**

ALTSASU Antzerkia.

El sonido oculto antzezlanaren emanaldia. Sarrera oso gutxi gelditzen dira. **19:30ean, Iortia kultur gunean.**

IGANDEA 25

ALTSASU Txirindula irteera.

Barranka Txirindularitza Taldeko BTT taldearen irteera: Itxasperrira 60 km-ko ibilbidea. **08:30ean, Zumalakarregi plazan.**

IRURTZUN Mendi irteera.

Iratxo elkartearen mendi irteera: Imozko itzulia. **09:00etan, elkartetik.**

UHARTE ARAKIL Areto futbola.

Sakanako Benjaminen Areto Futbola – Futbol 8 Topaketak. **Frontoian.** **10:00** SD Altsasu - Arbizu KT. **11:00** Altsasu - Altsasu KE. **12:00** Sutegei - Aralar Mendi. **13:00** Etxarri Aranatz KE - Uharte Neskak.

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioseviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

OLAZTI Areto futbola topaketa.

Emakumeak kirolean lagun topaketak: areto futbola, Sakanako Mankomunitateko Kirol, Berdintasun, Euskara eta Kulturartekotasun Zerbitzuek antolatuta. Izena ematea: kirolak@sakana-mank.eus edo anitzartean@sakana-mank.eus. **10:30etik 13:00etara, kiroldegian.**

OLAZTI Ikuskizuna.

Aboon teatre konpainiaren *El árbol de la vida*: Sorkuntzari egindako kantu bat da. Bidaia zirrargarria, hizkuntza sinboliko, sentikor eta minimalista bati esker irudimena hegaldaraziko duena. Sei hilabete eta lau urte bitarteko haurrendako bideratuta. Ondoren, 15 minutuko jolas gunea. Aurretik: 3 euro; egunean: 3,5 euro. **12:00etan, kultur etxean.**

ALTSASU Plaza dantzak.

Plaza dantzak emanaldia eta dantzaldia Etorkizuna dantza taldearekin eta Dardara gune Aguraingo taldearekin. **18:00etan, Foru plazan.**

ETXARRI ARANATZ Bertso jaialdia.

Bertso jaialdia: Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Eneko Lazkoz, Saats Karasatorre, Saioa Alkaiza eta Jone Uria. Gai jartzailea: Unai Artieda. **18:00etan, kultur etxean.**

ALTSASU Gazte agenda.

Gazte zinema. **18:00etan, Intxostiapuntan.**

IRURTZUN Emanaldia.

Koiuntura + arte Eduardo Galianoren eta giza eskubideen omenezko errezital eta kontzertua. **19:00etan, kultur etxean.**

ASTELEHENA 26**ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio

duinen aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 27**ALTSASU Hitzaldia.**

Martxoak 3 hitzaldia, Sortuk eta Ernaik Memoria Historikoaren inguruan antolatutako programaren barruan. **18:30ean, lortia kultur gunean.**

ALTSASU Haurrendako tailerra.

Sorioneku! Euskal Eskultura 2.100 urte haurrendako tailerra Juanjo Abaurrea eta Luisa Aldaburu artisten eskutik. **18:30etik 20:00etara, lortia kultur gunean.**

OSTEGUNA 29**ETXARRI ARANATZ Hitzaldi tailerra.**

Arauk eta mugak familian hitzaldi tailerra Leyre Canorekin, Andra Mari ikastolak antolatutako ikastolak herriari programaren barruan. **17:00etan, kultur etxean.**

OSTIRALA 1**IHABAR Jardunaldiak.**

Gaztainadi zaharrak berreskuratzea eta berriak landatzearen inguruko jardunaldiak. Alde teorikoa: Izurrite eta gaitzen kudeaketa, landaketa berriak, luraren prestaketa. Irakaslea: Efrén Martín Martín Caceresko La Villuercaseko Gaztaina Ekoiizleen Elkarteko nekazaritza ingeniaria. Ihabar, Irañeta eta Bakaikun gaztainondoak berreskuratze eta tradizioz erabiltzeko proiektua. **16:30etik 19:30ean, kontzeju etxean.**

ESKELA

**Ion Ruiz Imaz**

Zure barre handia gure alaitasunaren argia
Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak
bihotzez eskertu nahi dizkizue.

Ruiz familia

ESKELA

**Ion Ruiz Imaz**

Erraza izan da zu maitatzea, *jodido*
Handia zu Ioniko, zure txikitasunean.
Mendiko zintzarri hotsek
eramango gaituzte zugana

Familiak bihotzez eskertzen du
egun hauetan jasotako babesa

Imaz familia

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**edo eskolak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

ESKELA



Ion Ruiz Imaz

Ezer ez da betiko,
baina egin ezazu ahaztezina
Bidaia on, lagun

Zure kuadrila eta lagunak



ESKELA



Ion Ruiz Imaz

Lurrak goxo har zaitzala

Zure kinta



ESKELA

Ion Ruiz Imaz

'Ioniko'

Izarra amestu eta amestu



Altsasuko Peñak



iragarki
laburrak
.eus

iragarki
laburrak
.eus

JAIOTZAK

- **Xabat Resano Saez**, otsailaren 14an Ziordian

HERIOTZAK

- **Ion Ruiz Imaz altsasuarra**, otsailaren 15ean Olaztin
- **Joaquin Martinez Bengoetxea**, otsailaren 16an Ziordian
- **Matilde Bengoetxea Galbete**, otsailaren 18an Olaztin
- **Maria Pilar Andueza Legarra**, otsailaren 19an Uharte Arakilen
- **Mari Carmen Aguado Gil**, otsailaren 19an Altsasun
- **Alfonso Carlos Ondarra Quintana**, otsailaren 20an Etxarri Aranatzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN
JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN
JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

OHARRAK

Etxarri Aranazko Udaleko Abeltzaintza Bartzordetik dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dagoela jakinarazten dute: Partzela generikoa erabili ahal izateko, Europako Nekazaritza Politika Bateratuak ematen dituen dirulaguntzak eskatzeko udaltxean (10:00etatik 14:00etara) izena eman behar da martxoaren 15a baino lehen. Eskabide orria betetzearekin batera, abeltzaina lehenastuzko zatikatalogotutako nekazaritza ustiatetik titulartzat jotzen duen ziurtagiria eta aprobetxamendua esleitzeko legeak ezartzen dituen agiriak aurkeztu beharko dituzte abeltzainek.

Sakanako Mintzakide taldeak: Altsasun astelehenera 10:00etan liburutegian, ostegunetan 20:00etan Lezea tabernan eta ostiraletan 9:00etan Kaixo tabernan, Ziordian ostiraletan, 17:00etan liburutegian, Etxarri Aranatzan ostiraletan 19:00etan Xapatero tabernan, Arbizon astearreetan 16:30ean kirodegiko tabernan, Lakuntzan asteazkenetan 18:15ean jubilatutako elkartean eta Irurtzunen astelehenera 18:30ean Iraxo tabernan, ostegunetan 9:00etan Pikuxarren eta ostiraletan 19:00etan Pikuxarren ere. Parte hartzeko deitu 600 482 024 telefonora.

Aita Mariren 2024ko lehen erreskate misioa

finantzatzeko crowdfunding kanpaina mar-txan: Itsas Salbamendu Humanitarioak crowdfunding kanpaina hasi duela jakinarazi du Gotoe plataformaren bitartez eta Fiare Banca Eticarekin lankidetzan. Informazio gehiago www.smh.eus web orrian. Parte hartzeko sartu ondoko loturan: <https://www.gotoe.org/project/barco-de-salvamento-aita-mari>.

Elkartasun bilketa mar-txan: Etxean soberan eta egoera onean dituzun arropa eta bestelakoak Elkartasunezko bigarren aukera eman! Ostiraleroko 8. zbkian (lehenengo SD Altsasuko Erakunde kaleko 8. zbkian) 14:15era jasoko dituzte eraman dituzun gauzak. Jasotako guztia-ekin antolatzaileek (Sakana Harrera Haranak eta Mank-eko Anitzartean zerbitzuak) Elkartasun azoka egingen dute apirilaren 14an. Informazio gehiago 648 070 710 telefonora deituz edo anitzartean@sakana-mank.eus e-postara helbidera idatzi.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda mar-txan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazio-ko zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzutik antolatzen

ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp mezua bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialiei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskaraz hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaizten da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Aralarko Santutegiko museoa bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoa ikusi eta bisita egiteko ordu-tegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igaudeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu. iragarki@guaixe.eus www.iragarkilaburrak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK


- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarki ondoz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:


- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarki Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 23




Larunbata, 24



Igandea, 25



Astelehena, 26



FUTBOLA

EMAKUME PREFERENTEA

18. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasuk atsedean jardunaldia zuen

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTE MAILA

1	Lourdes	41
8	Altsasu	12

HURRENGO JARDUNALDIA

MARTXOAK 2 EDO 3

Kopako partida, zehaztu gabe

Altsasu, koparen zain

Preferenteko lehen fasea zortzigarren bukatu du Altsasuk. Aurki kopa du jokoan.

GIZON PREFERENTEA

20. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Zirauki 4-1

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Burlades B	40
11	Altsasu	29

HURRENGO JARDUNALDIA

OTSAILAK 24, LARUNBATA

17:00 Gazte Berriak - Altsasu (Antsoain)

Altsasu, hirugarrenaren kontra

Azken jardunaldian garaipen ederra lortu zuen Altsasuk. Zirauki 4-1 irabazita, garaipenaren xendara itzuli ziren altsasuarrek. Sailkapenean hirugarrena den Gazte Berriaren kontra partida serio eta garrantzitsua dute aurretik.

Zaldia vs Elomendi

Elomendiko Txapelketan, Zalduak 0-4 galdu zuen Salinasen kontra, eta bosgarren da. Asteburuan Elomendi bigarrena du arerio.

GIZON ERREGIONALA

17. JARDUNALDIKO EMAITZA

Liceo Monjardin - Lagun Artea 0-1

Etxarrik atsedean jardunaldia zuen

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	Mutilbera C	42
4	Etxarri Aranatz	35
7	Lagun Artea	28

OTSAILAK 25, IGANDEA

16:00 Etxarri Aranatz - Asdefor (San Donato)

16:00 Lagun Artea - Lagunak B (Zelai Berr)

Etxarri, atsedengatik puntuatu gabe

Etxarri Aranatzek atsedean jardunaldia zuen, ez du puntuatu eta sailkapenean behera egin du, laugarren postura. Igandean Asdefor hartuko du San Donaton.

Lagun Arteak Lagunak hartuko du

Liceo Monjardini Iruñean irabazi eta gero, animoz primeran dago talde lakuntzarra, Barañaingo arerio zuzena hartzeko prest.



Joan zen urtean Aralarrek antolatutako Ergoienako muruen lasterketa. MARTIN EARLY

Afizionatuak eta juniorrak, martxan

TXIRRINDULARITZA Afizionatuen Euskaldun Txapelketa larunbatean hasiko da, Emakumezkoen Euskaldun Txapelketa igandean, eta Nafarroako juniorren denboraldia, igandean. Lanari ekiteko irrikaz daude gure txirrindulariak

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Txirrindulari profesionalak urtea hastearrekin batera ekin zioten 2024 denboraldiari, eta orain afizionatuen eta kategoria txiki-kategorien txanda da. Afizionatuen tropelak dagoeneko iparraldeko Essor Basque txapelketako bost itzulietan parte hartu du, eta tartean sakandarrak izan ziren, baina hegoaldeko amateur egutegia asteburuan jarriko da martxan.

Euskaldun Txapelketak, abian

Larunbatean 10:00etan abiatuko den XVI. Zumaiako Sariak (112 km) Euskaldun Txapelketa mustuko du. Aurten guztira 48 lasterketa jokatu dira afizionatuen

Euskaldun Txapelketa (otsailetik ekainera bitartean) eta Lehendakari Txapelketa (uztaila-iraila) kontuan hartuta.

Emakumezkoen Euskaldun Txapelketa igandean hasiko da. Etzi Errenteriako Ane Santesteban Txirrindulari saria dago jokoan, 16:00etan hasiko dena. Kategoriei dagokienez, kadete eta junior mailako lasterketa izango da. Emakumezkoen Euskaldun Txapelketan hamar proba jaso dira guztira, eta kadeteen, juniorren eta afizionatuen mailan jokatu da. Bestalde, martxoaren 3an Espainiako Kopan murgilduko dira gure txirrindulariak. Txirrindulari sakandarrak bereziki Tafallako Beratxan eta

Ermitagañako Laturalen egin dute tokia.

Juniorrek Altsasu ate joka

Nafarroako egutegian, igandean, 11:00etan, juniorren XLVI. San Veremundo Zirkuitua lasterketa hartuko du Villatuertak (71 km). Juniorrak denboraldiari ekiteko gogotsu daude. Bigarren lasterketa astebete beranduago jokatuko da, Altsasun, martxoaren 3an (10:30), Burunda klubak antolatutako 38. Udaberri Saria (80 km).

Iker Gomez, selekzioarekin

Aipatzekoa da Quesos Albeniz Burunda taldeko Iker Gomez Lopez de Goikoetxea txirrindu-

laria Espainiako junior selekzioarekin kontzentratuta egon zela ilbeltzaren 18tik 21era, San Vicente del Raspeigen (Alacant), selekzioak 2024 denboraldian izango dituen hitzorduei begira talde harremana sendotu eta entrenamendu espezifikoko egiteko. Txukun ari da Gomez, eta aurten ere juniorren mailan protagonistetako bat izango da. Martxoan Europa mailako txapelketa garrantzitsuren batean parte hartzeko txartel asko ditu altsasuarrek.

Bestalde, martxoaren 3an Les Franquesesen jokatu den Fran Premi KH7 UCI lasterketa prestatzeko junior mailako Nafarroako aurreselekzioaren entrenamendua antolatu zuen Nafarroako Txirrindularitza Federazioak aste honetan. Bertan parte hartu zuten txirrindularien artean zeuden Iker Begiristain, Eñaut Oiarbide, Ekain Imaz eta beste.

Sakandarrak pistan

Otsailaren 17an, larunbata, II. El Caserio-Valsay Pista Txapelketa jokatu zen Tafallako Miguel Indurain belodromoan, Nafarroako Kirol Jokoetarako baliagarria. Aralar eta Burunda klubeko txirrindulariek lan polita egin zuten.

Kimuetan, Lander Gorriti (Aralar) bigarren izan zen, Javier Ramirez de Alda (Burunda) laugarren eta Aitz Berastegi (Aralar) seigarren. Haurren gizonzkoen mailan Xabier Gorriti (Aralar) seigarren sailkatu zen, Ezkai Lakuntza (Burunda) hamalau-garren, eta Unax Galardi (Aralar) hamabosgarren, eta haurren emakumezkoetan Enara Perez (Burunda) hirugarren izan zen. Azkenik, kadeteen mailan Erik Laiglesia (Aralar) seigarren sailkatu zen Tafallan.

FUTBOLA Etxarri, Osasuna eskolako taldeen topaleku

Larunbatean, otsailak 24, Osasunako futbol eskolako talde guztietako futbolariak topaketa egingo dute. Guztira 911 futbolari dira, eta bederatzia egoitzetan banatu dira, tartean Etxarri Aranazkoan. Osasuna Fundazioak antolatutako ekitaldiaren helburua kirola eta futbolarien arteko anaitasuna eta laguntasuna sustatzea da.



Etxarri antolatutako Futbol-Plaza.

BIKAIN GARAJEA



Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila

948 460 037 Arbizu



Utubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra



Joan zen urteko txapelketako Andra Mari eta Iñigo Aritza kadeteen sokatira taldeak, Etxarri Aranatzeko jokatuako finalean. Aurten ere bertan jokatu da finala.

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolak mustuko ditu aurtengo Nafarroako Herri Kirol Jokoak, igandean. Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta, txapelketaren 37. edizioa izango da aurtengoa, eta hiru kategoriatan jokatu da: kimuak (11-12 urte), haurrak (13-14 urte) eta kadeteak (15-16 urte). Kimuen mailan herri kirolen proba konbinatua jokatu da –kozkolak, zaku lasterketa, txingak eta korrika–, eta haurren eta kadeteen mailan aurreko lanei trontza gehitzen zaie. Horretaz gain, haurren eta kadeteen mailan sokatira txapelketa jokatu da. Taldeak mistoak dira, neska-mutuez osatutakoak.

Aurreko urteetan bezala, Nafarroako Herri Kirol Jokoetan lehiatuko diren Sakanako taldeak Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletatik sortutakoak dira. Haiei Antsoain, Arantza, Basaburua, Araxes, Berriozar, Igantzi, Joakin Lizarraga eta Paz de Ziganda taldeetatik sortutakoak gehitu behar zaizkie. Urtetik urtera harrera hobea dute Nafarroako Herri Kirol Jokoen, eta gazteek txapelketarekin duten ilusioa harrizkoa da.

Bost jardunaldi, bi Sakanan

Otsailaren 25ean, igandea, jokatu da Nafarroako Herri Kirol Jokoen lehen jardunaldia, Paz de Ziganda ikastolan. Bigarren jardunaldia Antsoaingo kiroldegia hartuko du martxoaren

Ikuskizuna hastera doa

HERRI KIROLAK Igandean XXXVII. Nafarroako Herri Kirol Jokoak abiatuko dira, Atarrabian. Bost jardunaldi jokatu dira, horietako bi Sakanan, martxoaren 10ean Altsasun, eta martxoaren 24ko finala Etxarrin. Sakanako hamalau talde lehiatuko dira

3an, eta hirugarrena Sakanara etorriko da, Altsasura, martxoaren 10ean. Laugarren jardunaldiaren txanda Elizondok hartuko du, martxoaren 17an, eta bosgarren jardunaldia edo finala Etxarri Aranatzeko jokatu da, martxoaren 24an. Jardunaldi guztiak 10:30ean hasiko dira, finala izan ezik; azken hau 11:00etan izango da.

Kimuen konbinatuan hemezortzi talde lehiatuko dira, haurren konbinatuan hamalau talde eta kadeteen konbinatuan zazpi talde. Sokatiraren kasuan, haurren mailako txapelketa 480

kilotan jokatu da, eta hamar talde daude izena emanda. Kadeteen mailako txapelketa 540 kilotan jokatu da, eta zazpi talde lehiatuko dira.

Andra Mari eta Iñigo Aritza

Andra Mari ikastola aitzindaria izan zen ikastetxeetan herri kirolak sustatzen, Jesus Senar irakaslearekin. Iñigo Aritza ikastola batu zitzaion, eta bi ikastetxeek herri kirolak bulkatzen jo eta ke jarraitzen dute. Sakanako makina bat belaunaldik parte hartu du Nafarroako Herri Kirol Jokoetan urte luze hauetan.

Andra Mariko herri kirol taldeen ardura Mikel Senarrek du, ikastolako soin heziketa irakasleak. Alboan Jesus Senar aita eta irakasle ohia du Mikelek, gorputzak segi bitartean gustura aritzen baita neska-mutilekin

herri kirolen. "Aurten proba konbinatuetan zortzi talde izango ditugu Andra Marin: bost talde kimuen mailan, bi talde haurren mailan, eta talde bat kadeteen mailan. Horretaz gain, sokatiran haurren mailan bi talde eta kadeteen mailan talde bat ditugu. Beraz, hamaika talde dira guztira".

Iñigo Aritzako taldeen ardura Jon Lagos ikastolako soin heziketako irakaslearena da. Aurten hiru talde sortu dira, "konbinatuetan kimuen eta haurren mailako talde bana, eta kadeteetan sokatira taldea. Joan zen urtean

"AURTEN HAURREN MAILAKO TALDEA ATERA DUGU, ETA POZIK GAUDE"

JON LAGOS

ez zen haurren mailako taldea atera, eta aurten animatu direnez, oso kontentu gaude".

Aurreko urteekin alderatuta, partaidetza nahiko antzekoa dela uste du Lagosek. "Aurten 32 kirolari izango dira guztira. Egon dira ere 10 partaide gehiagoko urteak ere, baina antzekoa dela esango nuke". Jesus Senarrek adierazi duenez, "aurreko urteetan 100 ikaslelik gora mugitu izan ditugu. Partaidetza gehien izan genuen urtean 120 ikasle pasa izan ziren. Aurten 80 dira". Ez da zenbaki txarra, inondik inora, baina kopuruotan COVID19 pandemiaren eragina ikusten dute biek.

Pandemiaren eragina

2020 urtean Nafarroako Herri Kirol Jokoen lehen jardunaldia jokatu ondoren iritsi zen COVID-19 pandemiaren etxeratzea eta geldialdia. "Gaur egun DBH 2., 3. eta 4. mailetan dauden ikasleei bete-bete harrapatu zien pandemiak. 2020ko txapelketa bertan behera geratu zen, eta 2021ean ez zen jokatu. Eta hori asko nabaritu da. Izan ere, herri kirolen ez badago jarraipen bat, gero asko kostatzen da berriro hastea. Eta belaunaldi hori, talde horiek ateratzea da gehien kostatzen ari zaiguna. Kimuen mailakoak berehala animatzen dira, baina haurren eta kadeteen mailan kostatzen ari da" azaldu du Senarrek. Lagos ados dago. "Joan zen urtean, esaterako, haurren mailan Iñigo Aritzaren ez zen konbinatu talderik atera. Justu pandemiak bete-bete harrapatu zituzten ikasleen kasua izan zen. Hor egon da zuloa, guri ere gertatu zaigu. Ez dakigu pandemiaren-gatik izan den ala ez, baina urte horiekin batera gertatu da".

Kadeteen taldea ateratzea kostatu egin zaie Andra Marikoei. Zortzi kirolari zituzten, kopuru oso justua. "Bilera batean Berriozarkoek esan ziguten beraiek kirolariak soberan zituztela. Mix bat egin dugu, eta horregatik, kadeteen taldeak Andraozar izena du. Herri kirolen aurkariak gara, baina taldeen artean elkarri laguntzen diegu".

Motibatuta

Bi ikastoletan mugimendu handia dago egunotan. Nafarroako Herri Kirol Jokoak hastear daudela nabari da. "Hor gabiltza buru belarri entrenatzen. Ikas-

"TXAPELKETA ERABAT BIZITZEN DUTE, HASTEKO GOGOZ DAUDE"

MIKEL SENAR



2023ko Andra Mari ikastolako herri kirol taldeak, ezkerrean Mikel Senar eta eskuinean Jesus Senar eta sokatirako Lizarraga ahizpak dituztela.

leak oso motibatuta daude, txapelketa gustuko dutelako, eta beste edizio bat hasteko prest gaude, gogotsu" dio Lagosek. Aurten Aste Santua aurreratua datorrenez, eta txapelketak Aste Santurako bukatua egon behar duelako, astebete edo gehiago aurreratu da. "Eta Sakanan Santa Ageda eta ihoteak ederki ospatzen ditugunez, dena elkarrekin etorri da, baina entrenatzen nahiko fin ibili dira ikasleak" gaineratu du.

Andra Marin ere berdin dabil-tza. "Gabonetako oporrak baino lehen hasi ginen pixka bat antolatzen, eta oporren ondoren herri kirolean entrenatzen hasi ginen". Andra Marin L.H.ko 5. eta 6. mailakoek ostegun arratsaldeetan entrenatzen dituzte proba konbinatuak. Haurren mailakoek eta kadeteek, hau da, DBH-koek, asteartean entrenatzen dute, atsedendian. Trontza entrenamendu espezifikoak ikastolako atsedendietan egiten dute.

Iñigo Aritzan kimuen mailakoek ostegun arratsaldeetan entrenatzen dute, eta DBHkoek, Andra Marin bezala, atsedendietan entrenatzen dute, "txapelketa gerturatu denetik, astean hirtan". Haurren mailako konbinatu taldea aurten berriro ateradenez, atzera ere trontza entrenamenduekin hasi dira. "Jesus Mari Arza lakuntzarra dator, eta hor ibiltzen gara, gustura. Trontzak motibatzen diela esango nuke" uste du Lagosek.

Sokatira, Lizarragatarrekin

Andra Mari eta Iñigo Aritzak sokatira taldeek entrenatzaile berberak dituzte: Belen eta Nerea



Jon Lagos, ezkerrean, 2023ko Iñigo Aritzako kadeteen sokatira taldearekin.

Lizarraga ahizpak. Haiei laguntzen Saioa eta Iker ilobak aritzen dira. "Arbizuko kiroldegia sokatira entrenatzeko egokitua dago eta gustura ibiltzen dira neska-mutikoak. Lizarragatarrek entrenatzaile bikainak dira" ados daude Senar eta Lagos.

Andra Mari eta Iñigo Aritzak. Iñigo Aritzak eta Andra Mari. Pike pixka bat ere badago bi taldeen artean, pike sanoa, beti-ere. "Gertuenarekin beti egoten da pikea, ezta?" dio Lagok, irribarrez. "Hor ibiltzen gara, pixka bat suak baretzen (kar-kar)" gaineratu du Senarrek. "Honek niri bihotza bi aldeetatik ukitzen dit, Andra Marin lan egiten dudalako, baina Iñigo Aritzako ikasle ohia naizelako. Iñigo Aritzaren alde banoa baita ere, nahiz

eta nire ikasleek batzuetan ez duten ulertzen" aitortu du.

Helburuak

Iñigo Aritzaren helburu nagusia "txapelketa parte hartzea" da. "Nahiz eta gaur egun zaila den hau esan eta betetzea, gure helburua parte hartzea da, Nafarroako hainbat herri bisitatzea, eta beste taldeetako jokalariek ezagutzea, beste herrikoekin harreman polita egiten dutelako. Oso giro euskalduna dago herri kirolean, eta hori polita da. Txapelketa ere hor dago, baina guk, irabazi edo galdu, bestelako helburu hauei ematen diegu garrantzia gehiago" nabarmendu du Iñigo Aritzakoak.

Andra Marikoak irabazteko taldeak ateratzen omen dituzte-

la entzuten da Burunda aldean. Ez dela horrenbestera, aldiz, Aranaz aldean. "Ikasleen arteko kontua izaten da gehiago. Egia da Andra Marin garrantzia ematen diegula herri kirolei, eta egia da pila bat lantzen ditugula. Eta, jakina, lantzen badituzu, txapelketan emaitzak etor daitezke" dio Mikel Senarrek.

Argi dagoena da Nafarroako Herri Kirol Jokoetan parte hartzen duten kirolari guztiek izugarri bizitzen dutela txapelketa. "Dena ematen dute, erabat bizitzen dute. Beraien artean ere taldea egiten dute, kohesio handikoa. Eta herri kirol txapelketa kanpoko jendea ezagutzeko aukera paregabea da. Gure kirolak dira, eta kiroltasun handikoak, gainera. Alde horretatik oso pozik gaude ikasleen erantzunarekin" uste du Senarrek.

Irrikaz

Txapelketaren zurrunbiloan sartzeko gogoz daude Andra Mari eta Iñigo Aritzak. "Neska-mutilak ere urduritzen hasiak dira; has-teko gogoz daude. Txapelketa abiatu, eta dena ongi atera dabila, neska-mutilak gustura aritu daitezela, eta gero gerokoak. Emaitzak etorri behar badira, etorriko dira, eta, bestela, txapelei hurrengo urtera arte agur esango diegu, ez baita ere ezer gertatuko" argi du Senarrek. "Polita da ikasleekin txapelketan kanpora ateratzea. Beste harreman batzuk sortzen dira, eta horrek asko ematen du" uste du Lagosek. Biek sakandar guztiak Altsasuko jardunaldira eta Etxarriko finalera gerturatzea animatu dituzte. "Merezi du, giro ederra egoten da".

Nafarroako Herri Kirol Jokoak



Koxkolak eta txingak

Proba konbinatuetakoa lehendabiziko bi probak dira. Lehendabiziko aldeak ateratzen dira.



Zakua eramatea

Txingen probak zakua lasterketari ematen dio bidea. Zakua korrikalari batetik bestera ongi pasatzea ezinbestekoa da.



Korrika

Zakua utzita, korrikaren tartea iristen da. Egin beharreko distantzia ongi kontrolatu beharko dute, ez lehertzeko.



Trontza

Haurren eta kadeteen mailan trontza izaten da azken lana. Korteia ongi eramatea gakoa da, ez trabatzeko.

Xotako jokalariek dena eman zuten Nafarroarekin

ARETO FUTBOLA Joan zen astean jokaturako Espainiako Areto Futbol Txapelketetan Nafarroako 19 urtez azpiko selekzioarekin jokatu zuten Nahia Moranek eta Naia Lizarragak, eta Nafarroako 16 urtez azpikoarekin Nahiana Lamarcak

Otsailaren 13tik 15era selekzio autonomikoen Espainiako Futsal Txapelketa jokatu zen Benidormen eta La Nucia. Nafarroako bi txapelketetan parte hartu zuen, 16 eta 19 urtez azpikoetan. Tartean Irurtzango Xotako hiru jokalariek zuten.

Leandro, Moran eta Lizarraga

19 urtez azpiko Nafarroako areto futboleko selekzioaren entrenatzailea Leandro Fernandez Xotako jokalaria ohia da, Irañetako bizilaguna. Gorka Galanen laguntzarekin, talde gaztea sortu du, "ilusio handikoa, gogotsua". Tartean Xotako bi jokalariek daude: Nahia Moran Iglesias eta Naia Lizarraga Elustondo. Espainiako Txapelketan Kanariar Irlak, Katalunia eta Aragoi zeuden euren multzoan. Lehendabiziko partidaren nafarrek 1-4 irabazi zieten kanariarrei, partida ederrean. Bigarrenean, aldiz, Katalunia faboritoaren kontra 11-2 galdu zuten nafarrek, jipoi ederra. Hirugarren jardunaldian partida oso lehiatua jokatu zuten Nafarroak eta Aragoi, bigarren postua eta sailkapenean aurrera egitea baitzegoen jokoan. 2-1 aurreratuta egon zen Nafarroa, baina Aragoi berdintzea eta



Nafarroako 16 eta 19 urtez azpiko areto futbol selekzioak. NAFARROAKO FEDERAZIOA

garaipenaren gola sartzea lortu zuen, eta Nafarroa txapelketatik kanpo geratu zen.

Lamarca

16 urtez azpiko Nafarroako selekzioaren entrenatzaile Alvaro Cordonek eta Claudia Gatón laguntzaileak talde polita prestatu zuten, tartean Xotako Nahiana Lamarca Zudaire jokalaria zegoela. Ceuta, Katalunia eta Aragoi taldeen multzoan zegoen Nafarroa. Helburua txapelketan ongi lehiatzea eta, batez, ere, ikastea zen.

Ceutarekin kontra 3-6 galdu zuten nafarrek. Katalunia faboritoaren kontra itxura polita eman zuen Nafarroak, baina kataluniarrak ikusgarri aritu ziren eta 5-1 irabazi zieten. Azkeneko partidaren, hasieran Aragoi ongi aurre egin zion Nafarroak, baina aragoiarrek ez zuten eurekin gupidarik izan, eta 6-1 galduta, Espainiako Txapelketari agur esan zion Nafarroak.

Bizitako esperientzia sekulakoa izan da Nafarroako selekzioaren jokalarientzako.

Kopa ahaztu, ligan zentratu

ARETO FUTBOLA Kopako final laurdenean, Jaen 0-3 aurreratu zen, baina Osasuna Magna Xotak berdintzea lortu zuen. Jaeneko laugarrena sartu eta gero, Xotak gol aukera ederrak izan zituen, baina Espindola atezainak guztiak gelditu zituen. Beraz, penaz, Xota Kopatik kanpo dago. Larunbatean, ligan, El Pozo Murciaren kontra jokatu dute irurtzundarrek.



XOTA

"Oso pozik nago egindako lanarekin eta brontzearekin"

IRATI IRIGOIEN CRESPO TAEKWONDOLARIA

TAEKWONDOA Urdiaindarrak Espainiako Taekwondo Txapelketa absolutuko senior mailan brontzezko domina lortu du. Abenduan Europako Txapelketan lehiatu zen

Maidet Betelu Ganboa URDIAIN

Otsailaren 2an eta 3an, Espainiako Taekwondo Txapelketa absolutua jokatu zen konkate modalitatean, Malagan. Nafarroako selekzioarekin hiru sakanak parte hartu zuten, Sakanako Bargagain klubeko Irati Irigoien Crespo urdiaindarrak eta Erkuden Moreno Muñoz eta Mohamed Essobai altsasuarrek. Hiru ere lan ederra egin zuten. Irati Irigoien orain arte 21 urtez azpiko mailan lehiatzen zen, baina aurten kategorian berria –senior maila– eta pisu berria –67 kg azpikoa– mustu ditu eta bikain aritu zen, brontzezko domina ekarri baitzuen. Agurainen taekwondo eskolak ematen hasi da Irigoien, eta trantsizio urte batean dagoela aitortu du.

Bargagain klubekoa zara baina Espainiako Txapelketan Nafarroako selekzioarekin aritu zara Lezkairu kluba ordezkatzeko.

Sakanako Bargagain klubekoak izaten jarraitzen dugu, baina gure irakasleak, Gerardo Montero Riverak, Lezkairu klubean ere ematen ditu eskolak. Txapelketetan parte hartzen dugunok aurten Lezkairutik federazioan sartu gaituzte, eta hortik izena. Urte askotan Nafarroako Taekwondo Federazioaren beka jaso duzu eta Iruñean egon zara.

Bai, urte askotan egon naiz bekatuta, baina federazioan zenbait aldaketa egon ziren, gustuko ez nituenak, eta Nafarroako selekzioarekin entrenatzeaz utzi nion. Erresidentziako egonaldia joan zen urtean utzi nuen, eta aurten selekzioaren entrenamenduak utzi ditut. Baina ez dut harreman

txarrik federazioarekin. Espainiako Txapelketetan Nafarroako selekzioarekin aritu nintzen, gustura, baina bekari uko egin eta entrenamenduak Bargagainen edo Lezkairun egiten ditut orain. **2024ko ilbeltzean kategorian berria mustu duzu.**

Orain arte 21 urtez azpiko kategorian lehiatzen nintzen, 62 kg azpiko mailan. Aurten 21 urte beteko ditudanez, ilbeltzetik senior mailara igo naiz, eta 67 kg azpiko mailan lehiatzen naiz.

2023an 21 urtez azpiko Espainiako Taekwondo Txapelketan brontzezko domina lortu zenuen eta aurten senior mailan brontzea lortu duzu. Seniorreko maila handiagoa denez, meritu handiko domina da.

2023/2024 ikasturte honetan asko entrenatu dut, abenduan Europako Taekwondo Txapelketan parte hartu nuelako Espainiako selekzioarekin. Horregatik, nire mailak pixka bat gora egin zuela ikusten nuen. Gustura aritu nintzen Malagan, Espainiako

"EUROPAKO TXAPELKETAN PARTE HARTU NUENEZ, ONGI PRESTATUTA IRITSI NINTZEN ESPAINIAKORA"

"EUROPAKOAN NIRE ESPEKTATIBAK GAINDITU NITUEN, ETA ESPAINIAKOAN ONGI LEHIATU NINTZEN"

Txapelketan, eroso. Lehenengo borroka Leongo Sonia Roldanen kontra izan nuen. Banekien ez zela oso arerio zaila izango. Aurrera egin nuen, eta bigarren arerioa Alba Murillo kataluniarra izan nuen. Aurkari gogorra da, eta konbatea aurrera atera nuenez, oso pozik. Hirugarren aurkaria Lena Moreno madrildarra zen. Lena ezagutzen dut, oso ona delako eta abenduan Europako Txapelketan berarekin egon nintzelako; 21 urtez azpiko Europako Taekwondo Txapelketa irabazi zuen. Banekien beraren kontra ez nuela asko egiterik, baina konbatean ongi lehiatu nintzen, eta nahiz eta galdu, oso pozik nago egindako lanarekin eta brontzea lortzeagatik. Hain zuzen ere, Lena Moreno izan zen Espainiako txapelduna.

Brontzea lortzea espero al zenuen?

Nire burua ongi ikusten nuen, momentu onean. Europako Txapelketarako ongi entrenatuta nengoelako Espainiakoan lana ongi egingo nuela pentsatzen nuen, baina hortik domina lortzera pauso bat dago. Egia esan, ez nintzen betiko presioarekin joan, lasaiago baizik. Kategoria eta pisu berriaz, agian horrek tentsioa arindu eta lagundu ninduen. Ez nuen espektatibarik.

Pisu ezberdina nabaritzen da?

Bai. Azken urteetan 62 kg azpiko kategorian aritu izan naiz, eta pisu jaitsiera horiekin pixka bat nekatuta nengoan. Horregatik, 67 kg azpikoan jokatzera erabaki nuen. Jakina, hori ere beste aldaketa bat da. Maila gehiago baino, aldaketa fisikoa da gehiago. Neska altuagoak, indartsuagoak daude 67 kg azpikoan, pisu eta indar gehiago dutenak. Nolanahi ere, espektatibarik gabe joan nintzen Espainiakora, eta ongi joan zitzaidan, brontzea ekarri nuelako.

Malagan ere Bargagaingo bi taldekide lehiatu ziren, Erkuden Moreno eta Mohamed Essobai. Zer moduz ikusi zenituen?

Erkuden 21 urtez azpikoan lehiatu zen. Konbate bat irabazi zuen eta bigarrena galdu, baina oso ongi ikusi nuen; bigarrena irabazten hasi zen, baina azken momentuan joan zitzaion. Eta Mohamed ere oso ongi ikusi nuen. Eboluzio handia izan du azken urteetan. Konbatea galdu zuen, baina borroka lehiatua izan zen; bi tontakeriarengatik joan zitzaion garaipena. Dena den, horrelakoa da taekwondo. Bargagainen



Irati Irigoien Espainiako Taekwondo Txapelketan lortutako brontzea ospatzen. UTZITAKOIA

nabaritzen da borrokalariok aldi berean igotzen dugula maila. Mohamed eta biok gara helduenak, bera ere nire adinekoa baita. Batera entrenatzen dugu, eta alboan motibatuta dagoen kirolari bat izatea handia da; beti dago animatzen, eta, gainera, eboluzio bat ikusten zaio.

Aipatu duzu abenduan Europako Taekwondo Txapelketan parte hartu zenuela. Zer moduz joan zen?

Lehenengo aldiz joan nintzen Espainiako selekzioarekin Europako Txapelketara. Bucaresten jokatu zen, Errumanian. Aben-

"67 KG AZPIKOAN NESKA ALTUAGOAK ETA INDARTSUAGOAK DAUDE; PISU ALDAKETA NABARITZEN DA"

"AGURAINEN KLASEAK EMATEN HASI NAIZ. TRANTSIZIO UNEAN NAGO; ALDAKETAK DATOZ"

duan zenez, 21 urtez azpiko Txapelketan lehiatu ginen. Lehenengo konbatea Ukrainako taekwondolari baten kontra jokatu nuen, eta irabazi nuen, baina bigarrena Serbiako ordezkari baten kontra jokatu nuen, eta galdu egin nuen. Oso pozik nago lortutakoarekin; uste dut egin beharrekoa egin nuela. Nire aurreikuspenak gainditu nituen, eta, orduan, pozik. **Espainiako selekzioarekin zure lehenengo aldia zen. Aldaketa handia sumatu zenuen?**

Nafarroako beste taekwondolari batekin joan nintzen Espainiako

selekzioa. Aurretik kirolari batzuk bistaz ezagutzen nituen, baina ez nuen harreman zuzenik eurekin. Jatorrak ziren, baina oso ezberdinak. Moldatu nintzen, baina nire kasa ibili nintzen gehiago. Gustura egon nintzen, eta entrenatzaileekin ere ongi. Tratua oso ona izan zen. Lau egun egon ginen, baina ez genuen Bucaresteko ia ezer ikusi, egun osoa pabiloian edo hotelean egon ginelako, kontzentratuta.

Atzera ere selekzioa deituko dituzten susmoa duzu?

Hori emaitzen arabera izaten da. Urrea edo txapelketa garrantzitsu horietara joateko beharrezko puntuak lortzen badituzu, zurekin jartzen dira harremanetan. Niri oso denbora gutxirekin deitu zidaten Europako Txapelketarako. Esperientzia ederra izan zen, nire kirol ibilbideko esperientzia garrantzitsuenetako bat.

Zein da hurrengo helburua?

Nazioarteko taekwondo txapelketa garrantzitsuak daude gertu, baina oraindik ez dut erabaki parte hartuko dudana ala ez, Aguraingo taekwondo klubean eskolak ematen hasi berri naizelako. Horrek nire ohiko entrenamendu egutegia zaildu dit. Unean-unean erabakiko dut zer egin, ez dut helburu zehatzik jarri.

Zer moduz irakasle gisa?

Udan titulua atera nuen, eta joan zen astean hasi nintzen klaseak ematen. Aguraingo irakasleak atsedena behar zuela eta, Gerardo gure irakaslearengana jo zuen. Hark nik klaseak eman ahal nituela erantzun zion, eta animatu nintzen. Pixka bat urduri nago, baina gutxika egingo naiz. Gustu handiz hartu dut irakasle izateko erroka. Bestalde, entrenatzen jarraituko dut. Pena pixka bat badut, nire ohiko entrenamenduetatik %100ean ezingo ditudalako egin, baina moldatuko naiz. Taekwondoan ditudan harremanak oso garrantzitsuak dira niretako; hori da, gutxi gorabehera nire mundua eta nire bizitza.

Ikasketak bukatu al dituzu?

Geldialdi bat egin dut. Aldaketa asko datoz. Bi urtez ingeniari zuzendatzaile gisa lan egin dut, eta datorren urtean beste zerbait ikasten hasiko naiz, baina oraindik ez dakit zer izango den. Trantsizio momentu batean banengo bezala sentitzen naiz, ikasketetan ditudan aukerak ikusi, aztertu, baloratu eta erabakitzeko. Nahi dudana bidean nagoela uste dut, gogotsu; ea gero zer gertatzen den.

Goi mailako bertso jaialdia Etxarri Aranatzen

Etzi, otsailak 25, igandea, bertso saioa izanen da Etxarriko kultur etxean, udalak antolatuta

ETXARRI ARANATZ

Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Eneko Lazkoz eta Saats Karasatorre etxarriarrak, Saioa Alkaiza eta Jone Uria bertsolariak Etxarri Aranazko kultur etxeko *plazan* izanen dira etzi, otsailak 25, igandea, 18:00etan, Etxarri Aranazko Udalak antolatutako bertso jaialdian. Gai jartzailea Unai Artieda izanen da.

Etxarriko Udalak urtero bertso saioa antolatzen du. Sarre-rak Etxarri Aranazko Udalaren webgunean eta udaletxean eros daitezke, 6 eurotan.



Saats Karasatorre. ARTXIBOA/NBE



BAZTERRETIK

EKAIN ALEGRE GIL

Sortzea

Igaro dira zenbait hilabete erabaki zenuenetik musika sortzen hasiko zinela eta zure lanbidea izango ez zen arren, nahiko serio hartu zenuen. Gogotsu hasi zenuen proiektua eta lehenengo abestiak konposatzeari ekin zenion inolako helbururik gabe, gauza berriak probatzea baino ez zenuen nahi.

Lau abesti egin eta grabatu ondoren, EP bat kaleratu (zure lehenengo albuma, ze ilusioa!) eta zure sare sozialetan partekatuta zenuen, jendeak zure musika ikus zezan: kulturari jarri zenion lehen aletxo. Hala ere, hainbeste lan egin ondotik entzule ugari izango zenituela eta kaleratutakoak berehalako arrakasta izango zuela espero zenuen arren, ez da horrela izan: "baina zergatik?".

Ezin zenuen egoera horrela utzi eta buelta emateko, egungo industriaren estandar guztiak betetzeko hautua egin zenuen: proiektuaren sare sozialak sortu, abestiak single moduan kaleratu, Instagram eta TikTok edukiz bete... horrek guztiak algoritmoa

zure alde jarriko zuela erabat konbentzitu.

Egunak, asteak eta hilabeteak joan dira eta gero eta zailagoa egiten zaizu azaltzea zergatik ez duzun arrakastarik lortzen zure musikarekin, hilabetero abesti berri bat kaleratu arren, sareetara publikazioaren bat ia egunero igo arren. Spotify-ko entzuleen kopuruak ez du gora egiten.

Eta buruan zurrumbilo bat sortu zaizu arrakasta ezaren arrazoiaren inguruko galderekin: agian ez zara behar bezain ona, beharbada jendea ez zaio sortzen duzuna inporta, akaso proiektua hobe kudeatuko bazenu lortuko zenuke egoera hobetzea...

Nahiz eta gozatzeko hasi zinen musika sortzen, jadanik musika ez zaizu inporta eta kantuak egitearen helburua zenbakiak puzea bilakatu da. Ez duzu onartu nahi, baina erabat aldatu da hasieran sorkuntzari buruz zenuen ikuspegia, musika sortzen ari zarela uste duzun bitartean pixkanaka zu ari baitzara desegiten.

"Esku soinuaz eta doinuaz dakidana eman nahi dut"

JUANJO MINTEGI DORRONSORO AKORDEOILARIA ETA YOUTUBERRA

Eskudoinua deitutako bideo kanala sortu du, eta bertan euskal doinuen historiari buruz hitz egiten du, akordeoia lagun duela

Eneida C. M. eta Erkuden R. B.

ETXARRI ARANATZ

Juanjo Mintegi Dorronsoro izatez ataundarra da, baina ia mende laurdena darama Etxarri Aranatzen bizitzen. Auzolagunendako ezaguna da, pandemia garaian arratsaldeak akordeoia-ekin alaitzen zituelako, eta zenbait kalejiratan parte hartzen duelako ere. Eskusoinuarekiko eta euskal doinuekiko afizioak uztartu ditu, eta "dakidana" elkarbanatzeko asmoz Youtuben kanala bat zabaldu du: *Eskudoinuak*. Bertan, euskal doinute-giaren historia erreparatu du, eta tartean elkarrizketak egiten ditu. Saioak ostiralero igoko ditu, eta dagoeneko zortzi elkarbanatu ditu. Gaur, otsailak 23, ostirala, bederatzigarrena igoko du: Euskal dantza doinuak izenburu duen saioan Migel Angel Sagaseta Urdaingo apaizarekin izan duen solasaldia elkarbanatu du.

Nondik dator proiektu berriaren izena?

Eskudoinuak deitzen da. Ni oso txarra naiz logo, marrazki, izen eta halakoekin eta alabari galdetu nion. Proiektua martxan jarri nahi nuela esan eta lehenengo saioa igo aurretik ea nola zihoan komentatu nion eta izen bat eta logo bat beharko nuela esan zidan. Orduan Xabier seme zaharrenari galdetu nion eta eskusoinua eta euskal doinuak lotzen zituen zerbait nahi nuela

esan nion; hitz bat, eta euskara zenez Euskal Herrian Euskaraz e hori izatea pentsatu genuen. Bozeto bat marraztu zidan eta asko gustatu zitzaidan. Egia esan ez diot garrantzia handia ematen horri, nire helburua da nik dakidana edo daukadan informazioa, egiten dakidana azken finean, zintzilikatu.

Bideo kanala bat da. Nola etorri zaizu?

Euskal Herrian izan ditugun doinu egileei buruz hitz egiten dut, duela urte askotatik gaur egun arte. 1786tik hasi naiz, kronologikoki. Lana utzi nuen, nire ofizioa zena, eta nire afizioari heltzea pentsatu nuen, baina ez nekien nola forma eman afizio horri. Diskoa grabatzeko aukera izan zitekeen, eskusoinua gus-tatzen zaidalako, eta nahiko kurio-soa zen, baina ez zen betetzen

"SAIO BAKOITZEAN EGILE BAKOITZEAN SAKONDUKO DUT, ETA PARE BAT DOINU JOKO DITUT"

"ESKUSOINUA BESTE AFIZIO BATEKIN UZTARTZEA ERABAKI NUEN: EUSKAL DOINUAK"

zidan zerbait. Orduan beste afizio batekin elkartu nuen: euskal doinuak. Betidanik asko erakarri naute. Baina asko da, asko. Bertso doinuak, kantu zaharrak eta kantu tradizionalak. Bi atal bezala desberdintzen ditut; 1700 urtetik XX. mendera arte, Ez dok hamahirura arte; orduetik tradizionalak izango dira. Doinu horiek soinuarekin uztartu nahi nituen, baina ez nuen ezta kristoren txapa eman nahi soinuarekin. Orduan pentsatu nuen egile bakoitzean sakonduko nuela, saio bakoitzean egile bat omenduko nuela, eta berak egin-dako doinu pare bat joko nituela. Pixka bat horrelaxe hasi nintzen informazio bila, eta oso gustura. **Nolakoak dira saioak? Zer biltzen dute?**

Denbora aldetik bakoitza desberdina da. Gaian eta omenaldia egiten diodan pertsona zentratzen da. Badira 36 minutu irauten duten bideoak, izan ere, niretzako Euskal Herriko espresio sentimentua adierazteko kanta horien oinarria bertso doinuak direlako, eta lehenengo saioan Aurkezpena izenekoan proiektua aurkeztu nuen, eta ondoren bertsoari buruzko saioa izan zen. Bertso doinuei buruz gauza batzuk badakizkit, baina Juanito Dorronsororengana joan nintzen eta solasaldi edo tertuliatxo bat izan genuen. Berak lan izugarria egin du horri buruz eta 3.000 bertso



Juanjo Mintegi Dorronsoro akordeoilari eta 'youtuberra'. ESKUDOINUAK

doinu baino gehiago jaso ditu. Saioan esaten dudana bezala, ez dira kultura asko egongo doinuteri guztiak 3.000 doinu edukiko dituenik. Guk bertso doinuetan bakarrik ditugu, eta Juanitori esker. Berarekin oso ongi egon nintzen, gainera osaba dut eta hasteko modu egokia zen. Omenalditxo bat egiteko aukera ere bazen. Zerbait aporteratu badezaket, adituengana joango naiz. Dagoeneko zortzi igo ditut: *Aurkezpena*, *Bertso doinuak*, *Etxahun zaharra*, *Iparragirre*, *Elizanburu*, *Bilintx*, *Etxahun* eta *Behin batean Loiolan*. Bederatzigarrena gaur izango da, Migel Angel Sagasari dantza doinuen inguruan egindako elkarrizketa.

Nola prestatzen dituzu?

Eskusoinua jotzen zerbait inprobisatzen dut, baina gai hauek ez ditut hainbeste kontrolatzen eta gidoia eginga daukat. Atal batzuk ere osatuta ditut. Denboraldi baterako egitaratuta daukat kanala. Maitasunarekin zintzilikatu nahi ditut, serio hartu dut. Gauza batzuk badakizkit, eta Juanitoren liburuetan asko dator. Bai bere bizitzari buruz bai bere idatziei eta bertsoei buruz. Interneten ere informazio asko dago eta gustatzen zait ere. Euskadi Irratiko Kutxa beltza deitutako saio batetik ere informazioa hartzen dut. Ahal dudana tokitik, iturri guztietatik

jasotzen dut eta egiten dudana da nire logoarekin hasi saioa, zerbait esaten dut, doinuarekin doinu bat jotzen dut, bere bizitzaren nondik norakoak kontatzen ditut, bitxikeriak eta abar, eta beste doinu batekin bukatzen dut.

Zein maitasunarekin igotzen dituzu?

Saiatzen naiz astean behin igotzea, eta bideoak programatzen ikasi dut ere. Ostiraletan 16:00ak inguruan zintzilikatzea nahi dut. Kasi profesionala egiten ari naiz. **Bideo bakoitzak lana eskatuko dizu, ezta?**

Ematen duena baino gehiago. Baina hori gertatzen da edozein gauzatan. Zerbait egiten duen edonork badaki zenbat kostatzen zaion egitea, gero ikusleak ikusten ez badu ere. Niretzako lan gutxien elkarrizketak egiten ditudanean izango da. Azken finean, tertulia bat da. Kamara grabatzen jarri eta ondoren muntaia egitea. Bestela, hamar minutuko saio bat egiteko hamabost bat egun egoten naiz. Baina polita da. Gero gertatzen zaizu batengana informazio bila joaten zarela eta berak beste informazio bat ematen dizu eta beste bide bat irekitzen dizu. Horrela da. Adibidez, Bilintxen bideoarekin penatuta gelditu nintzen gauza askoz gehiago nituelako esateko, baina Youtubeko mundu honetan ere pixka

bat kontuan izan behar da denbora, jendea ez dagoelako ohituta bideo luzeak ikustera. Di-da eta sakondu gabe ikusten dira. Horrek bultzatuta *Behin batean Loiolan* egin nuen. Kantaren atzean dagoen istorioaren inguruko monografikoa da.

Bidean ere jendea ezagutzen duzu.

Eta izugarri pozten nau horrek. Niretako erreferenteak izan direnak beraiekin egoteko aukera izatea. Oraindik ez da gehiegi etorri hori. Orain arte egin ditudan hilda daude, kantu zaharrak dira; lehenengo bloke hori bukatzen ari naiz eta horren ondoren landu nahi ditut doinu tradizionalak. Fandangoekin hasiko naiz. Lehenengo saiatuko naiz informazio pixka bat ematen nondik datorren fandango eta egileak egiten saiatuko naiz. XX. mendearen hasierakoak dira. Saio bat egin nahi dut Altsasuko Potajerik buruz. Gizon hori ikaragarriaren eta ez hemen ezaguna da, baina kanpoan ez hainbeste. Ez dago informazio asko.

Kepa Junkera bisitatzen egon zinen.

Proiektu honekin lotuta Keparekin egoteko asmoa nuen, eta berarekin harremanetan jarri nintzen eguberrietan. Kristoren ilusioa egin zidan niretzako bera Jainkoaren ondorengo zerbait delako. Askok estimatzen dudana pertsona izan da, eta gertatu zena gertatuta ez nekien nola

manejatuko nintzen ere. Oso baldintzatuta dago, baina oso gustura egon nintzen. Berak bidali zizkidan familiaren argazkiak, bere aitonenak, eta gustura hartu zuen berak ere bisita. Gero korreo bidez esteka bat bidali zidan *Con cariño* jar-tzen zuela, eta bere Facebook-eko sarrerara bat zen esanez Juanjo Mintegi bisitan egon zela eta ni ateratzen naizen argazki bat; bera ere ateratzen zen, baina moztu egin zuen. Nik ez ditut sare sozialik, baina ilusioa egin zidan.

Harremanak iraungo du, beraz.

Elkartuko garela, ziur. Bere saioa egiten dudanean nahiko nuke berarengana joan eta erakutsi. Badakit zer esango didan: "Egiten duzuna ongi dago eta askatasun osoa duzu nahi du-

"ASTERO BIDEO BAT IGO NAHI DUT; OSTIRAL ARRATSALDETARAKO PROGRAMATZEN DUT"

"PROIEKTU HONEKIN KEPA JUNKERAREKIN EGOTeko AUKERA IZAN DUT; ILUSIO HANDIA EGIN ZIDAN"

zuna esateko". Bere etxera joan nintzenez nire tramankulu guztiakin joan nintzen, ez dakizu nola sortuko den egoera, eta bideokamera, mikroa eta abar eramaten nituen. Bere aldetik jarrera izugarri baikorra izan zen, nahi dudana idazteko eta grabatzeko esan zidan. Baina momentuan erabaki nuen ez grabatzea. Berarekin arratsalde pasa egon nahi izan nuen, eta gozamen hutsa izan zen. Oso gustura aritu nintzen Arriaga antzokian egin zuen disko grabazioaren inguruan hitz egiten.

Noizbait pentsatu izan duzu bideoak egiten egongo zinela?

Lan osagarri moduan eta pozik sentitzen naiz. Kontziente naiz hor geldituko den zerbait dela, eta nik horri balore handia ematen diot. Hemendik urte batzuetara esango dute: "Bazegoen tipa xelebre bat...". Ni ere aprobetxatzen naiz Interneten dauden bideo askorekin, eta nik dakidana Interneten utziko dut ere.

Proiektuaren inguruan zerbait esan dizute?

Egia da nirekin komunikatzea ez dela erraza, eta beste izen bat duenez, inork ez daki Juanjo Mintegi dela bertan sartu arte. Komentarioren bat idazten didate, eta gauza oso polita da. Badago jendea zain egoten dena. Euskaraz da, euskaldun gutxi eta euskal hiztunak gutxiago, eta mundu guztiari bideratuta dagoen zerbait da, baina nik uste dut adin batetik aurrerako jendeari gehiago gustatuko zaiola bere imajinarioarekin bat egiten duelako. Jende horrek gaurko teknologiarekin lotura izatea ez da hain arraza. Orduan poza ematen dit esaten didatean amarekin ikusi dutela, edo ostiraleko plana familia elkartzeko Eskusoinuak ikustea eta gero pilota partidak ikustea dela esaten didatean. Oso polita da hori entzutea. Nik ahal dudana bitartean saiatuko naiz. Doinutegia lantzeko gai asko daude. Bertso doinuak, dantza doinuak, euskal musika korala, eliza doinuak, haurren doinuak, pailazoak eta abar. Mundu bat da, eta horretan euskaldunak oso aberatsak gara. Potentzial handia dago.

Eskusoinua jotzen jarraituko duzu?

Bai. Afizio asko ditut, baina soinu jotzea sentimenduz egiten dudana zerbait da eta denbora asko eskaintzen diot.

"Oraindik ez dago Korrika girorik"

Martxoaren 14tik 24ra Korrika Euskal Herrian barna ibiliko da Irun eta Baiona lotzeko. Martxoaren 19an pasatuko da Sakanatik. Baina hori baino gehiago bada Korrika. Hala azaldu du Aitor Irigoien Irigoienek, Sakanako Korrika arduradunak

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

1 Irakasle ere bazarenez, zein da zuzena: badator Korrika edo Korrika badator?

Korrika badator. Gainera, nire ustez, soinu hobea dauka.

2 Antolatzailea AEK: Apende Euskara Korriendo?

Aditu gabe neukan hori. Oso ona! Oso azkar ikasten da euskara hemen, AEKn.

3 Zergatik Harro?

Herri honetan berezkoa den hizkuntza bat daukagu, urte asko dauzkana, eta oraindik bizirik mantentzen dena. Hizkuntza polita da. Gainera, jatorri ezezaguneko. Horrek misterio kutsua ematen dio. Horregatik, leloko "Harro" hitza.

4 Zergatik Herri?

Azkenean, herri txiki bat garelako. Bi estatuen artean bizi gara. Gure hizkuntza propioa daukagu. Hizkuntza horren alde borrokatzen gara. Herri honek badauka harro egoteko arrazoirik.

5 Aurten inauteriak, Emakumeen Nazioarteko Eguna,



Aitor Irigoien Irigoien, atzean Itsasi euskaltegia duela.

Korrika, dena batera etorri da. Eragin dizue?

Inauteriak beti Aste Santua baino 40 egun lehenago dira. Orain arte jendeak burua momoxarroetan-eta ibili du. Orain aktibatuko dela, Emakumearen Nazioar-

teko Eguna ere bada. Beharbada biak uztartuko ditugu, eta kitto. Jendea momentuka dabil; momentu batean buruan zerbait egitea dauka. Hori pasa eta beste bat. Orain jendea hasiko da Korrikan pentsatzen. Oraindik

ez dago Korrika girorik. Giroa hotz dago. Baina neure buruan giro hori aspaldi dago. Uste dut heldu den astetik aurrera izanen dela. Orain arte jendeak moztu-erosten aukeraketan zuen burua. Jende batzuek entrenatzen hasiko direla esaten dute, Korrikan gehiago irauteko. Baina gero ez dakit egingen duten. Bestela ere, Sakanan korrikalari asko eta asko daude. Horrekin ez dugu ardurarik. Ziurrenik batek baino gehiagok Sakana guztia edo, gutxienez erdia bai egingen dutela. Bestetik, AEK-ko irakasleok nabari dugu Korrika heldu dela. Horretaz arduratu naiz. Gelaz gela azalpenak eman dizkiet ikasleei, oraindik nahiko lasai daude, baina ailegatuko zaie.

6 Sortu dira Korrika batzordeak?

Lakuntzakoak sortu zen, eta gainontzekoak orain sortuko dira. Aurreko Korrikako batzordeetan egon ziren sakandarrekin harremanetan jartzen ari naiz. Normalean, dirua ateratzeko bazkariren edo afariren bat egiten da. Eta Korrika Txikia antolatuko da. Esaterako, Arakilgo Udalak bertso saioa antolatu du Ihabarren. Altsasuko Iortia kultur gunean *Badon* opera posdramatikoa emanaldia egonen da.

7 Horretan laguntzen dizuete?

Bai. Gainera, nahikoa autonomoak dira. Guk materiala-eta ematen diegu, eta beraiek antolatzen dira. Askok laguntzen digute, bai.

8 Zer moduz km salmenta?

Ongi. Otsailaren lehen zabaldu zen erosteko epea, eta kilometro guztiak despeditu arte zabalik egonen da. Sakanan 62 km daude.

Baten bat saldu gabe dago, baina gehienak salduta daude. Jendeak orain Sakanatik kanpo laster egitera joateko ohitura du. Km-ak erosten dituzte. Ez dut hori ulertzen, baina pasatzen da. Asteburuan erostea lortzen badute, asteburu pasa joaten dira. Eta orain Erriberan asteburuan jartzen da, beraz, jendea Erriberara asko joaten da. Joera gero eta handiagoa dela ematen du.

9 Ekimen ezaguna izateak, jendearen aldetik inertzia izatea eta utzikieriaz jokatzeko ekar dezake?

Ez dut uste. Korrika jendeari asko gustatzen zaion festa edo jaialdia da. Gainera, jendea iristen zaio. Jendea hunkitu egiten da. 23. edizioa da. Lehendabizikotik urte asko pasa dira. Hala ere, jende asko ateratzen da, disfrutatzen du. Eta zain dagoela, jendea urduri egoten da. Txinparta hori sortzen duen ekitaldia da. Jendeak gozatu egiten du. Inertzia badugu, baina utzikieririk ez dago.

10 Sakana. Korrika. Gaua. Hirutasun aldaezina?

Ahalegintzen gara, eta eskatzen dugu egunez pasatzea. Baina ez dago modurik. Gasteiz eta Iruñea artean gaude, nahiko "erraz" saltzen da. Horrekin ere jokatzeko dutela uste dut. Hurrengorako egunez pasatzea eskatuko dugu, ea zer pasatzen den.

11 Zergatik egin behar da bat Korrikarekin?

Festa oso originala eta polita da. Niri asko gustatzen zait. Euskal Herri guztian egiten den lasterketa... euskara aldarrikatzeko beste modu bat da. Euskarak behar du. Merezki du. Baita AEK-k ere.

MATRIKULAZIO KANPAINA

2024-2025

ZUEN IKASTETXERAKO BEHAR DUZUEN MATERIAL GUZTIA

619 821 436 - 948 564 275
info@gkomunikazioa.eus · Foru plaza, 23-1. Altsasu